



2026eko

PLANGINTZA OROKORRA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	1
1. ETXEBIZITZA	1
1.1 Gazteak eta emantzipazioa. Emantzipa zer?.....	1
1.2 Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean.....	4
1.3 Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa.....	6
1.4 Bilbo Unibertsitate Hiria	7
1.5 Harremanak eragileekin.....	7
1.6 Emantzipazio laguntzen Bizkaiko mapa	8
2. ENPLEGUA	11
2.1 Gazteak eta emantzipazioa	11
2.2 Gazteak eta lehen sektorea	11
2.3 Gazte bekarioak: Bekarioen estatutua	14
2.4 Lehen aukera: inpaktuaren ebaluazioa.....	16
2.5 Nazioarteko egunak:.....	18
2.6 Harremanak eragileekin.....	19
3. HEZKUNTZA	20
<u>3.1 HEZKUNTZA FORMALA</u>	21
3.1.1 Eskola kontseilua	21
3.1.2 Bilbo unibertsitate hiria.....	22
3.1.3 Deustuko Unibertsitatearekin harremanak	24
3.1.4 Hezkuntza zubiak.....	26
3.1.5 Hezkuntza formaleko Nazioarteko Eguna	27
<u>3.2 HEZKUNTZA EZ FORMALA</u>	28
3.2.1 Campamento en el Parlamento.....	28
3.2.2 Gazte eraldatzaileak.....	30
3.2.3 Errekurtso gida	32
3.2.4 Euskadiko Gazteak Lankidetzan.....	33

3.2.5 Hezkuntza ez-formaleko Nazioarteko Egunak.....	34
3.2.6 Eragileekin koordinazioa	35
<u>3.3 EUSKARA ETA HIZKUNTZA-ANIZTASUNA.....</u>	<u>36</u>
3.3.1 Migrazio Foroa.....	36
3.3.2 Korrika 2026	37
3.3.3 Euskara eta hizkuntza-aniztasuneko Nazioarteko Egunak.....	38
4. ASTIALDIA.....	39
4.1 Udako ekintzen kanpaina 2026.....	39
4.2 Astialdi Foroa	41
4.3 Astialdiko Eskolen Foroa	43
4.4 Astialdiko formakuntzak: boluntarioria eta elkartegintza.....	44
4.5 Erakundeekin hizketan. Topaketa Sailburuarekin.....	45
4.6 Erlijioen arteko bizikidetzat.....	50
4.7 Campamento en el Parlamento	50
4.8 Harremanak eragileekin	50
4.9 Gazteriaren elkargunea.....	51
5. PARTAIDETZA.....	52
5.1 2024-2030 Plan Estrategikoa eta Urteko Ekintza Plana.....	53
5.2 EGK-ko Formakuntza Plana	54
5.3 EGK-ko 40. urteurrena.....	56
5.4 Kristalezkoak: Gazteak eta Ongizate Emozionala.....	58
5.5 Gazteriaren Foru Transpirenaikoa.....	59
5.6 EGKatalogoa: Material, Gela eta Aholkularitza Zerbitzua.....	60
5.7 EGK Parte Hartze Espazioetan.....	61
6. BAKEA ETA BIZIKIDETZA.....	62
6.1 Etikasi Polonia eta Ipar Irlanda.....	63
6.2 Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean.....	66
6.3 AcercaTé.....	66
6.4 EHU Uda Ikastaroa.....	68

6.5 Erlijioen arteko elkarbizitza	70
6.6 Nazioarteko egunak.....	73
6.7 Eragileekin Harremanak.....	74
7. BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA.....	75
7.1 Gaur8 lantaldea	76
7.2 III. Berdintasun Plana.....	77
7.3 Gune Anitza	79
7.4 Hilerokoa eta menopausia.....	80
7.5 EGK erasoen aurkako protokolo berriak.....	82
7.6 Gazte Eraldatzaileak.....	83
7.7 Nazioarteko egunak	85
7.8 Harremana feminismo eragileekin	86
8. PRESIDENTZIA.....	88
8.1 Barne Kordinazioa	89
8.2 Harreman Instituzionalak	97
8.3 Eragin Politikoa.....	102
8.4 EGKren 40. Urteurrena	104
8.5 Kristalezkoak: Gazteak eta Ongizate Emozionala	106
9. KOMUNIKAZIOA.....	108
9.1 Komunikazio Plana.....	108
9.2 Webgunearen mantenua	112
9.3 Diseinatzaile Gazteen Lan Poltsa.....	113
9.4 Lan Arloak.....	114

SARRERA

Txosten honetan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2026ean Euskadin aurrera eraman dituen proiektuak aurkezten dira. Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko elkarlanean diseinatu dira, eta aintzat hartu dira lan-arlo ezberdinen lantalde eta eragileek egindako ekarpenak. Proiektuon eta EGKren ekinbideen helburua da gazteriaren eta administrazioen arteko zubi-lana indartzea, gazteen beharrak eta proposamenak erakundeei eta gizarteari helarazteko.

Krisi egoeretan, gazteria kolektibo kolpatuenetarikoa izan ohi da, eta horrek ondorio latzak eragiten ditu gazteen bizitzetako esparru orotan. Testuinguru horretan, EGKren xede nagusienetarikoa gazteen bizi kalitate eta egoerak aztertzea da. Horrekin batera, sustatzen dituen parte hartze espazioei eta bertan ateratako ondorioei esker, proposamen eta ekarpen ezberdinak administrazioei helarazi eta gizartean zabaltzeko helburua du EGK-k.

Aurten, 2024-2030 Plan Estrategikoaren bigarren urtea izanik, EGK-k bertan zehaztutako ildo estrategikoak sendotzen jarraitu du, gazteriaren errealitatera egokituz eta bere eragin soziala eta politikoa indartuz.

EGK-k aurrera ateratzen dituen proiektu, ekitaldi eta txosten orotan gazteen ikuspegia txertatzen du, eta ildo horretan kokatzen diren ekimenetan ere lagundu egiten du, gazte-ikuspegia duen proiektu sendo bat eraikitzeko asmoz. Oro har, bada, 2026ean ere gazteen eskubideak bermatzeko eta haien ahotsa entzunarazteko egin du lan EGK-k.

Plangintza honetan aipatzen diren proiektu guztiak gure [webgunean](#) edo gure [sare sozialetan](#) daude ikusgai.

1. ETXEBIZITZA



Gazteen emantzipazioa gero eta beranduago iristen da, etxebizitzaren prezioen garestitzeak, alokairuaren ezegonkortasunak eta baliabide ekonomikoen faltak baldintzatuta. Etxebizitza eskubidea bermatzea funtsezkoa da gazteen autonomia eta bizi-proiektu duinak garatzeko.

EGK-ko Etxebizitza lan-arlotik, gazteen etxebizitza errealitatea aztertzen eta eskubide honen defentsan lanean jarraituko dugu, gazte guztientzako etxebizitza duin, eskuragarri eta egonkorra aldarrikatuz.

1.1 Gazteak eta emantzipazioa. Emantzipa zer?

Gazteen Euskal Behatokiak berriki argitaratu duen legez, 18 eta 29 urte arteko gazteen ustez lan-merkatuari (% 63) edo etxebizitzari loturikoak (% 36) dira Euskadiko arazo nagusiak. Emantzipazioari loturiko datuak erreparatuta, bada, ez da harritzekoa: izan ere, 2024ko datuen arabera 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 17,2 besterik ez zegoen emantzipatuta. Preseski, 18 eta 24 urte artekoen % 5,3 besterik ez zegoen emantzipatuta, eta 25 eta 29 urtekoen artean % 32,8.

Emantzipazioak eta, konkretuki, egungo egoerak, lotura hertsia du etxebizitza merkatuaren izaera iritsezinarekin, parke publikoaren urritasunaren eta lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuarekin. Adierazle argi dira, ildo horretan, gazteek etxebizitza eskuratzeko egin behar duten esfortzu ekonomikoari loturikoak: Gazteen Euskal Behatokiak argitaraturiko *Emantzipazioaren Giltzak Euskadin (2025)* txostenaren arabera, 30 urtetik beherako gazte batek bere soldata garbiaren % 59,4 bideratu behar du hileroko alokairu errentaren ordainketara, eta hipoteka kuotaren ordainketaren kasuan % 72,8koa da esfortzu ekonomikoa. Gaineratzekoa da, bada, soldata garbiaren % 30a hartu ohi dela salneurri ordaingarritzat, eta hortik gorakoak gainera esfortzu ekonomikoaren adierazle direla.

Beste era batera esatearren, gazte batek etxebizitza jabetzan eskuratzeko gehieneko salneurri onargarria 101.115€-koa da, etxebizitza libreen batez besteko prezioa baino 144.144€ gutxiago,

alegia. Alokairuaren kasuan, gazte batek gehienez ordain lezakeen errenta onargarria 414€-koa litzateke, egun sinatuta dauden alokairuen batez besteko errenta baino 405€ gutxiago.

Auziok jendartean duten garrantzia agerikoa da: are gehiago, nabarmentzekoak dira azken urteotan egoerari erantzute aldera hartu diren neurri ezberdinak. Tartean, aipagarri da Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Legearen ondotik hezurmamitutako 2030 Emantzipazio Estrategia. Ildo horretan, joan den urtean izandako berrikuntza nabarmenatarikoa izan zen Emantzipa dirulaguntza, zeinak 8.284 eskari jaso baitzituen (2024).

EGK-k, bada, ezinbestekotzat du egoeraren inguruko analisietan gazteen ahotsa aintzat hartzea. Halaber, martxan diren eta martxan jar litezkeen neurrien inguruko eztabaidetan gazteen ikuspegia txertatzea ere beharrezkoa da. Zentzu horretan, orain arte egin legez, EGKrentzat lehentasun behinena izango da emantzipazioaren inguruko aldarrikapenak ondu eta erdiguneratzea.

Izan ere, EGK-k hamarkadak daramatza gazteen emantzipazioa aldarrikapenen lehen lerroan izaten, ekarpenak egiten eta hobekuntzak proposatzen. Helburuak gazteen kalitatezko enpleguak defendatzea eta etxebizitza duinetarako sarbidea bermatuta izatera heltzea dira, horrekin, bizi-proiektu autonomo baten oinarriak finkatzeko. Helburuoi lotuta sortu zen, bada, **Emantzipa...zer?** Hots, diskurtsoa landu eta etengabe berrikusi zein osatzeko aukera eman du honek, erakunde, talde politiko eta eragile ezberdinen aurrean garrantzizko eragile bilakatuta.

Honekin, bada, garrantzitsua da etxebizitza eta enplegu arloei eskainitako espaziook indartsu izan daitezen lan egiten jarraitzea, eta 2026an ere lan-lerro honi erantzungo dio EGK-k. Hala ere, aurtegoan bestelako asmo bat ere izango du EGK-k: emantzipazioaren inguruko ikuspuntua zabaltu eta, mezu ezkorren aurrean, gazteak ahalduntzeko balioko duten baliabide eta diskurtsoak sortzea, hain zuzen ere.

Proiektu hau Enplegu lan-arloarekin batera koordinatzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren ikuspuntu anitz batetik enplegu eta etxebizitzarekin lotura duten gaiak jorratzea, ekimenak eta neurriak aztertzea eta ondorioak ateratzea. Jomuga, hausnartutako ondorio horiek administrazioari helaraztea eta politika publikoetan eragitea da batetik, eta euskal gazteriaren artean zabaltzea, bestetik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egungo egoerari buruzko informazio berria jasotzea, aktualitatearen jarraipena egiteko.
- Gazteen enplegu eta etxebizitza datuen eguneraketa eta analisia egitea.
- Gazteei emantzipazioaren inguruan diren neurri eta eztabaiden berri ematea, forma berri eta dinamikoak arakatuta.
- Gazteak eta gazte-elkarteak enplegu eta etxebizitza arloaren gainean batuko dituen eztabaidaguneak sortzea.
- Gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta alternatiba eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Politika publikoetan eragiteko proposamenak garatzea.
- Kanpaina komunikatiboak egitea.

Garapena

Aktualitatearen jarraipena eta datuen eguneraketa:

2026an ere berri garrantzitsuenen erregistroa egingo da, erregistrorako eredu formalizatua baliatuta. Jasotako informazioa helburu ezberdinetarako erabiliko da, eta baita era ezberdinetan zabalduko ere. Halaber, teknikariok ohi dituzten erregistroak berrituko dituzte, enpleguari, etxebizitzari eta emantzipazioari lotutako datuak bilduta.

- 2025eko berrien *recap*-a: Enplegu eta Etxebizitza teknikarien 2025ean egindako aktualitatearen jarraipena baliatuta, 2026ko urte hasieran joan den urteko berri nabarmenenak bildu eta argitaratuko dira sare sozialetan.
- 2026ko berrien bilketa eta *recap*-a: 2025eko berriekin egin legez, 2026 amaieran urteko berririk garrantzitsuenak bildu eta argitaratuko dira sare sozialetan.

Kanpaina komunikatiboak eta intzidentzia:

Sare sozialak eta bestelako komunikazio kanaletan informazioa zabaltzea eta infografiak, bideoak eta bestelako materialak sortu eta zabaltzea. Halaber, eragile eta erakundeekin bilerak egitea gazteen egoera hobetzeko proposamenak jorratzeko. Horrekin, intzidentzia publiko eta politikoa egingo du EGK-k.

- Emantzipazio laguntzen, Gazte Abal programaren eta berrikuspen fiskalaren inguruko *reef*-ak zabaltzea.

EGK-k, intzidentziari lotuta, kexen eta iradokizunen postontzia jarriko du martxan 2026an. Gazteek etxebizitza eta enpleguari loturiko auziei dagozkien kexa eta iradokizunak biltzeko postontzi bat izango da eta bertan jasotako kexekin gazteen ahotsa jasoko da. Martxora bitarte egingo da diseinua, eta apirilean aktibatuko da. Urte amaieran, bildutako kexa eta iradokizunak antolatu eta txosten batean bilduko dira.

Monografikoak:

2026an EGK-k martxan jarriko ditu emantzipazioari loturiko monografikoak. Zehazki, etxebizitzari eta enpleguari loturiko bi gai hautatu eta sakonki jorratuko dira, gaion inguruan diharduten agenteekin elkarlanean. 2026an bi izango dira jorratutako gaiak.

- Aniztasun funtzionala, lehen seihilekoan egingo da.
- Etxegabetasuna, bigarren seihilekoan egingo da.

Guzti honetaz gain, urtean zehar koordinazio bilerak egingo dira EGK-ko presidentearekin, garai bakoitzean sortzen diren behar eta egoeretara egokitutako ekimenak aztertzeko, planifikatzeko eta aurrera eramateko. Helburua izango da jardueren jarraipena egitea, elkarlana sendotzea eta gazteen parte-hartzea sustatuko duten proposamen berriak garatzea.

Ebaluazioa

- Ekoitzi eta zabaldutako edukien sakontasuna eta harrera kualitatibo zein kuantitatiboa.
- Jarduera komunikatiboaren irisgarritasuna eta eraginkortasuna.
- Politika publikoetan eragitea ahalbidetzen duten harremanen sendotasuna.
- Egiten diren koordinazio bileren kopurua eta kalitatea.

1.2 Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean

EGK-k urteak daramatza gazteak Euskadin emantzipatzeko eta etxebizitza duin bat lortzeko dituzten zailtasunen errealitatea agerian jartzen eta egoera honen konponbidean ekarpenak egiten. Gazteek hitz egitean kolektibo homogeen bat irudikatzeko joera dagoen arren, ez da horrela; aitzitik, gazteria kolektibo heterogeneoa da, eta gazte izateaz gain beste hainbat faktorek (generoa, migrazio prozesu bat bizi izana, arrazializatua izatea...) zailtasun, oztopo eta diskriminazio erantsiak gehitzen dizkiete emantzipatze prozesuei.

Ilido horretan, 2021ean proiektu bereizi bat sortzeko beharra gailendu zen: **Nork-nori-zer** proiektua, alegia. Honekin, etxebizitza sarbidean ematen den xenofobia eta arrazakeria aztertzeari ekin zion EGK-k, fokua, zehazki, alokairurako sarbidean jarrita.

2024 eta 2025 urteetan, gaia jorratzen duten hainbat eduki sortu eta bildu ziren, proiektuaren nolabaiteko emaitza onduta. Zehazki, honakoak izan ziren sortu eta <https://norknorizer.com/> webgunean bildutakoak:

- Proiektuaren inguruko txostena, egoeraren azterketa sakona jasotzen duena eta zenbait datu biltzen dituen.
- Arazoaren inguruko bideo labur bat, gaiaren garrantzia modu bisual eta ulerterrazean azaltzen duena, edonork ikus dezan.
- Quan Zhou ilustratzailearekin (@gazpachoagridulce) elkarlanean sortutako komiki ilustratua, zenbait gazte taldek etxebizitza eskuratzeko orduan jasaten dituzten diskriminazio egoerak erakusten dituen.

Proiektu hau Bakea eta Bizikidetzaren lan- arloarekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEn alokairurako sarbidean ematen diren xenofobia eta arrazakeriaren inguruan egindako azterketaren emaitzak sozializatu eta gaiarekiko ardura zabaltzea, ekitaldi baten bidez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Etxebizitzarako sarbidean ematen den arrazakeria eta xenofobiaren inguruan sortutako diskurtsoa zabaltzea.
- Eragileekin kontaktua egiten jarraitzea eta sarea mantentzea.
- Diskriminazioak salatzea eta ekarpenak proposatzea.

Garapena

Urteotan sortutako diskurtsoa zein azken urteetan ondutako webgune, komiki, txosten eta bideoa zabaltzeko erakusketa bat egingo da Donostiako Kontadores Zentroan, otsailaren 5ean hasita.

Halaber, erakusketaren inaugurazio gisa, ekitaldi bat ere egingo da, zeinetan Quan Zhou Wu ilustratzaileak hartuko baituen parte. Inaugurazio ekitaldia otsailaren 5ean izango da, 18etan.

Askotariko eragileak gonbidatuko dira bertara, eta publiko zabalari ere egingo zaio bertaratzeko gonbita.

Ekitaldia gauzatzeko, honakoak izango dira 2026 hasieran Etxebizitza eta Bake eta Bizikidetzaren teknikariek egingo dituzten lanak: Quan Zhou Wu-ren egonaldiako prestaketak, Kontadores Zentroarekin koordinazio lanak, inprimategiarekin harremana eta ilustrazioen kudeaketa, ekitaldiaren zabalpenerako bitartekoen ekoizpena eta zabalpena.

Ebaluazioa

- Sortutako edukien hedapen kuantitatiboa.
- Antolatutako erakusketaren eta aurkezpen saioaren harrera kuantitatibo eta kualitatiboa.
- Publikoki sustatutako hausnarketaren sakontasuna.

1.3 Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa

Administrazioak gazteen emantzipaziora bideratutako neurri edota dirulaguntza ezberdinak ditu, eta batzuetan, administrazio maila ezberdinen laguntzak eskuragarri daude eskualde bererako. EGK-k 2020an eginiko Gazteen Etxebizitza Egoera Ezagutzen txostenean agerian geratu zen bezala, askotan gazteek euren udalak eta administrazioek eskaintzen dituzten aukerei buruzko informazio gutxi dute, edota ez dakite nora jo neurri hauen inguruko informazioa jasotzeko.

EGK-k gazteek administrazioak emantzipatzeko eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko mapa interaktibo bat sortu zuen 2019an. Tresna honen bidez gazteek bizi diren udalerria klikatuz zein aukera dituen modu erraz batean ikusteko aukera izango dute. Halaber, administrazio maila desberdinek aukera desberdinak eskaintzen baditu, hauen arteko bateragarritasuna posible den edo ez agertu zen.

Mapa hau erabat osatu zen 2021 urtean eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zitzaion. Honek interesa erakutsi zuen erremintaren inguruan, eta bertan jasotakoak gazteriari bideratutako informazio, neurri eta laguntza guztiak bilduko dituen erreminta batean jasotzeko lanean ari da.

Gauzak horrela, 2026an ere maparen eguneraketa egingo da, eta Eusko Jaurlaritzari erremintaren trantsizioa egiteko urratsak ere emango dira. Halaber, mapan bildutako informazioa bestelako euskarri batzuk erabilita ere bilduko da.

Helburuak

[HELBURU OROKORRA:](#)

Sortutako mapa interaktiboa eguneratzea, eta Eusko Jaurlaritzaren erremintara trantsizioa egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteek administrazioak hauentzat eskaintzen dituen emantzipatzeko neurriak eta dirulaguntzak ezagutzea eta berauek ezagutaraztea.
- Euskal gazteriaren eta administrazioaren arteko zubi lana egitea.
- Administrazio eta gazteen artean dagoen harresiari irtenbidea ematea.
- Administrazioaren neurri eta programak gazteen artean ezagutzera ematea.
- Tokiko administrazioekin harremana sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Alokairu laguntzen eta Udalek gazteen emantzipaziorako dituzten bestelako laguntzen bilaketa egin eta mapa interaktiboa eguneratu.
- Neurriak Excel batean bildu.
- Mapak eginiko ibilbidea eta 2026ko herrietako alokairuen egoera sozializatu.
- Bizkaiko herrietan diren laguntzak bildu, eta *datawrapper* erabilita mapa bat osatu.
- Balorazioa gauzatu.

Ebaluazioa

- 2026 urtean dauden neurrien balorazioa, tartean, beste urte batzuekin alderatuta.
- Erremintaren trantsizioaren ibilbidea.
- Zabalpenaren hedapen kuantitatibo eta kualitatiboa.

1.4 Bilbo Unibertsitate Hiria

Proiektu hau Hezkuntza lan-arloarekin batera koordinatuko da. Horrenbestez, plangintzaren 5.1.2 Bilbo Unibertsitate Hiria atalean dago azalduta.

1.5 Harremanak eragileekin

Emantzipazio alorrean eragile askok eta anitzek dute zeresana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile horiekin guztiekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta Etxebizitza arloan lan egiten duten elkarten, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren ikuspuntu bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, horretarako, EGK erreferente bihurtuta.
- EGK-ko proiektuetan gazte berrien parte hartzea lortzea.
- EGK-ko elkarten artean etxebizitza lantzen dutenekin harremana sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Emantzipazio arloko agenteekin (elkarte eta administrazioak) bilerak egin harremanak sendotu zein berriak egin eta informazioa trukatzeko.
- EGK-koak diren eta EGK-koak ez diren elkarten artean gazteen parte hartzea bultzatu emantzipazio proiektuetan.
- EGKrentzat interesgarriak diren proiektu eta jardunaldietan parte hartu.
- Emantzipazioaren arloan EGK-k landu ez dituen arazoak dokumentatu.
- Bildutako informazioarekin EGKren diskurtsoa elikatu.

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin biltzea.
- Egindako kontaktu berri kopurua.
- EGK eragile ezagun horien artea ezagutaraztea.

1.6 Emantzipazio laguntzen Bizkaiko mapa

Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, Emantzipazio laguntzen mapa interaktiboa garatuko da. Proiektu honen bidez, Bizkaian dauden gazteei zuzendutako emantzipaziorako laguntza, dirulaguntza eta baliabide publikoen eskaintza bildu eta modu bisualean eskainiko da. Helburua

da informazio erabilgarria eta eguneratua eskura jartzea, gazteek beren bizi-proiektua garatzeko eta etxebizitza, enplegua edo prestakuntzarekin lotutako erabakiak hartzeko garaian orientazioa izan dezaten. Emantzipazio-prozesua gazte askorentzat erronka konplexua da, eta maiz ez da erraza ezagutzea administrazio publikoek eskaintzen dituzten aukerak eta laguntzak. Horregatik, proposatutako mapa interaktiboak ikuspegi berri eta erabilerraza eskaintzen du: informazioa kokapen geografikoaren, laguntza motaren eta helburuaren arabera antolatuko da, eta horrek nabarmen erraztuko du baliabideetara sarbidea. Gainera, tresna hau etengabe eguneratzeko gaitasuna izango du.

Proiektu hau Bizkaiko Foru Aldundiaren gazteen emantzipazioa sustatzeko estrategiaren barruan kokatzen da, eta teknologia berriak erabiliz herritarren informazio-eskubidea sendotzeko konpromisoarekin bat dator.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bizkaiko gazteentzako emantzipazio-laguntzei buruzko informazioa modu interaktibo, irisgarri eta eguneratuan eskaintzea, orientazio eta erabaki-hartze prozesua errazteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bizkaiko erakundeek eskaintzen dituzten emantzipazio-laguntza eta baliabide guztien azterketa eguneratua egitea.
- Informazioa modu bisual eta ulerterrazean antolatuko duen mapa digital interaktiboa diseinatu eta garatzea.
- Gazteentzako komunikazio-kanal eta sare sozialetan proiektua ezagutaraztea, erabilera sustatzeko.

Garapena

EKINTZAK

Proiektuaren garapena hainbat fasetan antolatuko da, hasierako informazio-bilketatik hasi eta tresnaren hedapen eta ebaluazioraino. Prozesu osoa Foru Aldundiarekin koordinatuta gauzatuko da. Helburua da mapa interaktibo fidagarri, erabilerraz eta herritarrei benetako balioa emango dien tresna izatea.

- **Informazioaren bilketa eta egituraketa:** Lehen fasean, Bizkaiko gazteei zuzendutako emantzipazio-laguntzen inguruko informazio guztia bilduko da: foru, udal eta autonomi mailako programak, baita beste erakunde edo elkarte batzuen ekimenak ere. Datu horiek

sailkatu eta egituratuko dira irizpide argien arabera (laguntza mota, helburu demografikoa, betekizunak, epea, arduraduna...). Fase honetan, informazioaren egiaztapena eta eguneraketa-prozesua ere zehaztuko dira.

- **Diseinu kontzeptuala eta informazio-arkitektura:** Bigarren fasean, mapa interaktiboaren egitura logikoa eta bisuala definituko dira. Erabiltzailearen esperientzia erdigunean jarriko da, horretarako prototipo eta maketa interaktiboak sortuz. Eguneroko erabilera erraztuko duten irizpideak ezarriko dira, hala nola bilaketa erraza, kategoria eta filtro ulergarriak etab.
- **Proiektuaren komunikazioa eta hedatzea:** Behin tresna erabilgarri dagoenean, komunikazio-kanpaina bat abiaraziko da gazteen artean erabilera sustatzeko. Kanpainak sare sozialetan, BFaren webgunean eta gazteentzako ekitaldietan izango du presentzia.
- **Mantentze eta eguneratze-sistema:** Mapa interaktiboa ez da tresna estatikoa izango. Bere biziraupena eta erabilgarritasuna bermatzeko, eguneratze-protokoloak ezarriko dira

Ebaluazioa

- Egiten diren koordinazio bileren kopurua eta kalitatea.
- Mapan jasotako informazioaren osotasuna eta eguneratze maila.
- Gazteen eta erakundeen arteko gogobetetze maila galdetegi labur baten bidez.
- Ezarritako helburu zehatzen betetze-maila

2. ENPLEGUA



Gazteak formakuntza maila altuenetarikoa izanda ere, prekaritate hitzarekin definitu daiteke gazteriaren egoera lan merkatuan; langabezia, partzialtasuna, aldi baterako kontratuak, soldata baxuak, gaitzifikazioa...

2008ko krisiaz geroztik, hainbat krisi sostengatu behar izan dituzte bizkarretan. Lan merkatuaren egoerak eta bizitzaren garestitzeak ez dute batere erraza jartzen gazteen autonomia eta emantzipazioa aurrera eramatea.

EGK-ko Enpleguko lan-arlotik, gazteen lan merkatuko errealitatea aztertzen eta bizitza duin eta autonomoen alde egiten jarraituko da, eta nola ez, gazte guztien kalitatezko enplegua aldarrikatzen. Horretarako gazteak eta enpleguaren arteko datu zein egoeraren berri emango dugu urtean zehar egingo diren proiektu guztiekin.

2.1 Gazteak eta emantzipazioa

Proiektu hau Etxebizitza lan-arloarekin batera koordinatuko da. Horrenbestez, plangintzaren 1.1 Gazteak eta emantzipazioa atalean dago azalduta.

2.2 Gazteak eta lehen sektorea

Euskadin, lehen sektorearen etorkizunak etengabeko erronkei aurre egiten die, eta horietako bat gazteen parte-hartzea da. Azken urteetan gai honek berriz ere garrantzia hartu du, bai gizartean, bai erakunde publikoetan. Gizartearen eta erakundearen arreta areagotu egin da, eta gaur egun hainbat politiketan agertzen da lehen sektorearen eta gazteen arteko lotura indartzea. Gobernu mailan, hainbat estrategietan belaunaldi-txandaketa bultzatzeko ekimenak azpimarratzen ari dira, hau da, lehen sektoreko langile gazteak beharrezkoak direla aitortzen da, sektorearen iraunkortasuna eta etorkizuna bermatzeko.

Izan ere, azken urteotan ikusi da, lehen sektoreak, bereziki familia nekazaritzak, landa-eremuetan bizi den biztanleriaren zati garrantzitsua eta gizartearen elikaduraren oinarria osatzen dutela, baina aldi berean sektorea kudeatzeko zailtasunak eta belaunaldi-txandaketan izandako hutsuneak agerian utzi dituzte. Gaur egun, sektorearen etorkizunak gazteen ekarpena behar du, eta hori nabaritzen da politika publikoetan, zeinetan gazteak lehen sektorean lan egitea sustatzen duten planak eta laguntzak jasotzen dituzten

Proiektu honek helburu du, gazteen eta lehen sektorearen arteko zubiak eraikitzea eta sektorean interesa duten gazteekin elkarlanean aritzea, baina baita ere erakunde publikoek sektore honi ematen dioten laguntza eta baliabideak aztertzea eta horien eragina baloratzea. Gaur egun, landa eremuen eta hiriguneen arteko desoreka gero eta handiagoa da, eta lehen sektoreko gazteen egoera eta aukerak hobeto ezagutzea ezinbestekoa da. Horregatik, helburu nagusia gazteen parte-hartzea sustatzea eta lehen sektoreari buruzko politiken inguruan intzidentzia politikoa egitea izango da.

Datuetan oinarrituta, 2021eko Euskal Nekazaritzako Inkesta datuek argi erakusten dute lehen sektorean lan egiten dutenen % 20 baino gutxiago direla gazteak, eta horrek alarman jartzen du sektorearen etorkizuna. Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapeneko Estrategiak aipatzen du gazteen sarrera eta egonkortasun falta lehen sektorean lurraldean erronka nagusietako bat dela. Gainera, azken aldian, lehen sektorea eta gazteen sarrera indartzeko ekimenak eta aliantzak gero eta gehiago izango direla erakusten duen adibide argi bat izan

2025ean indarra hartu duen proiektu honi segida ematea ezinbestekoa da EGKren barnean eta horretarako aurteko helburu zein ekintzak azpimarratzea ezinbestekoa izango da. Besteak beste, World Rural Forumekin elkarlanean aritzea edo gazte nekazariak gertutik ezagutzea garrantzitsua izango da egoeraren nondik norakoak hobeto ulertu eta ezagutzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen ikuspegitik lehen sektorearen egoera eta erronkak aztertu, sektorean diharduten gazteen errealitatea gertutik ezagutu, eta gazteen interesa eta parte-hartzea sustatzea erakunde, administrazio eta gizarte-eragileekin elkarlanean, landa-eremuen garapenean eta belaunaldi-txandaketaren indartzean eragin sozial eta politikoa lortzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen ikuspegitik lehen sektorearen egoera eta erronkak aztertzea, batez ere sarrera, egonkortasuna eta bizi-baldintzei lotutakoak.
- Lehen sektorean diharduten gazteena gerturatu eta hauen egoera ezagutzea
- Lehen sektorearen inguruko erakunde, administrazio eta beste eragileen arteko elkarlanean haritzea eta parte hartzea
- Gazteen interesak eta proposamenak bildu eta instituzioetara helaraztea, landa-eremuen garapenean eragin sozial eta politikoa lortzeko.
- Gaiaren inguruko sentsibilizazioa eta ezagutza handitzea, komunikazio-ekintzen eta gizarte eztabaiden bidez gazteak lehen sektorearekin konektatzeko.

Garapena

- Gazteei buruzko datu eguneratuak biltzea eta horien ikusgarritasuna handitzea.
- EGK-k martxoaren 17an parte hartuko du *World Rural Forum*-ek antolatutako jardunaldi batean, lehen sektoreko erronkei eta gazteen parte-hartzeari buruzko gogoetan sakontzeko. Jardunaldi hau topagune egokia izango da Euskadiko eta nazioarteko hainbat gazte nekazari, aditu eta erakunderekin esperientziak partekatzeko.
- Emakume eta gizonezkoen artean existitzen diren ezberdintasunak aztertzea, horretarako, urriaren 15a baliatuko da emakume gazteen eta orokorrean gazteen presentzia eta papera lehen sektorean ikusarazteko, baita emakumeak baserrian izan duen parte hartzea azpimarratzeko
- Gazteen sentsibilizazioa lehen sektorean lan egiteko aukera gisa sustatzea, sektorearen etorkizuna bermatzeko
- apiriletik ekainera bitartean, lurralde-mailako ezagutza sakontzeko bilerak egingo dira Euskadiko mankomunitate desberdinekin. Bilerok lurralde bakoitzeko berezitasunak ezagutzeko aukera emango dute. Hau funtsezkoa izango da politika publikoetan eragiteko eta erakundeei lehen sektoreko gazteentzako neurri eraginkorrak proposatzeko.
- CRAF, HAZI Fundazioa, eta sektoreko sindikatuarekin (EHNE, UAGA, ENBA), harremana mantenduko da eta bestelako elkarteekin harremana egiten saiatuko da.

Ebaluazioa

- Aztertutako gaiaren sakontasuna eta lortutako ondorioen kalitatea.

- World Rural Forumek egindako jardunaldian eta mankomunitatetako bileretan jasotako informazioaren erabilgarritasuna.
- EGK-k lehen sektorearen inguruko diskurtso propioa eta posizionamendua indartu izana.
- Ekintzetan (jardunaldiak, bilerak, sare sozialak) izandako parte-hartze kopurua.
- Lurralde bakoitzeko erakundeekin eta gazteekin ezarritako harremanen sendotasuna.
- Urriaren 15eko kanpainaren bidez lortutako eragin soziala eta ikusgarritasuna.

2.3 Gazte bekarioak: Bekarioen estatutua

Bekarioaren Estatutuak gazteek lan-merkatuan lehen urratsak emateko duten egoera arautzen du, prestakuntza eta lan-esperientziaren arteko harremana zehaztuz. Estatutuaren helburua praktikak baldintza duinetan garatzea, prestakuntzaren balioa bermatzea eta esplotazio-egoerak saihestea izan ohi da. Azken urteotan, lan-praktiken araudiari buruzko interesa areagotu da, gazteen lan-baldintzetan eta lanarekiko segurtasunean izan duen eraginagatik.

Euskadin, gazte askorentzat bekak dira lan-esperientzia eskuratzeko bide nagusienetako bat. Hala ere, azken urteotan egiaztatu da bekadunen egoeran desberdintasun handiak daudela arlo, erakunde eta lurraldearen arabera. Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, 2025ean Euskadin bekadunen artean %60 baino gehiago 30 urtetik beherako gazteak ziren, eta horietatik erdiak baino gehiagok aitortu zuten beren praktikek ez zutela lan-kontratuaren babesik. Egoera horrek gazte askoren emantzipazio-prozesua eta lan-ibilbidea baldintzatzen ditu, eta lan duina izateko eskubidearen inguruan eztabaida soziala piztu du.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) beharrezkotzat jotzen du egoera hori sakon aztertu behar dela eta Gazteen Bekarioen Estatutuak ekar ditzakeen aldaketak modu kritikoan aztertzea ezinbestekoa dela. Horrek aukera emango du gazteen ikuspegia instituzioetara eramateko eta lan-praktikak benetan prestakuntza-esperientzia baliagarriak izan daitezen bermatzeko. Halaber, lurraldeko gazte bekarioen benetako egoera ezagutzeak aukera emango du sailkapen eta proposamen zehatzak egiteko, lana eta ikaskuntza uztartzeko eredu bidezkoago batera hurbilduz.

Proiektua egituratuta egongo da datu-bilketan, azterketa kritikoan eta emaitzen zabalkundean oinarritutako lan-ildoetan, gazte bekarioen errealitatea Euskadin modu integralean islatzeko eta etorkizuneko politika publikoetan eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko gazte bekarioen errealitatea aztertzea eta Bekarioen Estatutua gazteen lan-baldintzetan duen eragina ebaluatzea, gazteen ikuspegitik politika publikoetan eragin sozial eta politikoa lortzeko oinarri sendoa sortuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bekarioen Estatutuaren edukia eta helburu nagusiak aztertzea, gazteen lan-eskubideen eta lan duinen babesaren ikuspegitik.
- Euskadin bekadunek bizi duten egoera aztertzea, sektore, lurralde eta erakunde moten arabera datu baliagarriak bilatuz.
- Gazte bekarioen esperientzia eta iritziak jasotzea, haien ahotsa txostenean modu zuzenean islatzeko.
- Estatutuak gazteen lan-ibilbideetan, emantzipazioan eta prestakuntza-aukeretan duen benetako eragina identifikatzea.
- Lortutako ondorioak txosten batean sistematizatzea, Euskadiko gazteriaren egoerari buruzko ikuspegi kritikoa eta proposamenak jasoz.
- EGKren diskurtsoa eta posizionamendua sendotzea, gazteen lan-praktiken inguruko erreferente sozial eta instituzional moduan.

Garapena

Proiektuaren garapena 2026. urtean zehar egingo da, Euskadiko gazte bekarioen egoera modu sakonean ezagutzeko eta Bekarioen Estatutuaren eragina aztertzeko. Lan hau hainbat fasetan egituratuko da, datu-bilketatik analisi kritikoraino, helburua izanik gazteen lan-eskubideei buruzko diskurtso sendo eta oinarritu bat eraikitzea:

- Bekarioen Estatutuaren azterketa teorikoa egingo da. Horren bidez araudi honek jasotzen dituen eskubideak, betebeharrak eta praktiken baldintzak identifikatuko dira, Euskadiko testuinguruan.
- Analisi honek hainbat adierazleri erreparatuko dio, hala nola adinari, soldata mailari, lan-arloari, prestakuntza-erakundearen motari eta praktikak irauten duen denborari.
- Datu eta testigantza enpirikoak bilduko dira gazte bekarioengandik zuzenean. Horretarako, elkarriketak zuzenak egitea izango litzateke egokiena. Dinamika horien bidez jasoko dira gazteek dituzten iritziak, kezkak eta proposamenak, haien ahotsa egitasmoaren muinean kokatuz.
- Jasotako datuak eta ondorioak txosten batean sistematizatuko dira, Euskadin gazte bekarioen egoeraren eta Estatutuaren eraginaren balorazio orokorra jasoz. Txosten hau maiatzaren 8an argitaratuko da eta bere helburu nagusia intzidentzia politikoa egitea izango da.

- Azkenik, lortutako ezagutzarekin eta gazte bekarioen ahotsetan oinarrituta, EGKren diskurtsoa eta posizionamendua sendotuko dira. Horrek aukera emango du etorkizunean politika publikoetan eragin handiagoa izateko eta gazteek praktikaldietan duten babesa eta balioa handitzeko.

Ebaluazioa

- Aztertutako datuen eta egindako analisiaren sakontasuna eta fidagarritasuna.
- Gazte bekarioen ahotsa eta esperientziak jasotzeko parte-hartze maila.
- EGK-k gaiaren inguruan diskurtso propio eta sendoa eraikitzeko lortutako aurrerapena.
- Txostenaren kalitatea eta maiatzaren 8ko argitalpenaren inpaktu soziala.
- Proiektuaren emaitzek gazteen lan-eskubideen inguruko eztabaida eta intzidentzia politikoan izan duten eragina.

2.4 Lehen aukera: inpaktuaren ebaluazioa

Lehen Aukera programa Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gazteentzako lehen enplegu-esperientzia babesten duen ekimen publikoa da, 16 eta 30 urte bitarteko langabetuei zuzendua, titulatura baina lan-esperientzia urri edo ezer gabe. Programa honek enpresetara bideratutako diru-laguntzak ematen dizkie enpresari gazteak kontratatzeke, kontratu finko edo praktikak sustatuz, Lanbidek kudeatua eta Europar Batasuneko FSE+ funtsak finantzatua.

Programa Lanbidek kudeatzen du, Garantía Juvenil sistema europarraren markoan, FSE Plus 2021-2027 programarekin elkarrekin finantzatua. 2024ko deialdian enpresak 107 eragile kolaboratzaileetara zabaldu ziren, eta 2025era bitartean eskaerak urriro zabalik egon ziren (uraurrean 31 urri arte). Datuen arabera, EAEko gazteen langabezia-tasa %25 ingurukoa da, eta programa honek 1.000 kontratu baino gehiago bultzatzen ditu urtero, emantzipazioa eta ongizatea hobetuz.

EGKrentzat esanguratsua izango da proiektu honen nondik norakoak ezagutzea, gazte parte hartzaileen perfila nolakoa den jakitea eta bestelako informazioa eskuratzea gazteen lan eskubideen alde egiteko. EGKren diskurtsoa aberasteaz gain intzidentzia politikoa egiteko beharrezko informazioa jaso ahal izango da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Lehen Aukera programaren inguruko txostena prestatzea, Gaztela eta Leon-go kontseiluaren eta ISEAK-en 2022ko txostenak eredu hartuta, programaren jatorria, datuak, eragina eta intzidentzia politikoa aztertzeko, gazteen lan-eskubide duinak bultzatzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Programa honen ezaugarriak eta jatorria deskribatzea, Garantía Juvenil europarraren markoan eta FSE+ finantzaketarekin lotuz, datu estatistikoak erabiliz.
- Gazte parte-hartzaileen perfilak (16-30 urte, titulaturik, lan-esperientzia urria) eta ekarpenak (kritikak soldata eta prekarietateei buruz) biltzea, iritziak jasoz.
- Intzidentzia politikoa justifikatzea, programa hobetzeko proposamenak formulatuz eta enplegu-politikan eragin eraldatzailea sortuz.

Garapena

EKINTZAK:

Programaren ezagutza sakonagoa

- Lanbideko webgune ofiziala kontsultatzea eta 2025eko deialdiaren oinarriak irakurtzea, jatorria, finantzaketa (FSE+) eta kontratu-moduak ulertzeko.
- Castilla y León-eko eta ISEAK-2022 txostenak irudikatzea, antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzeko.
- Tailer informala antolatzea eragileekin (enpresak, sindikatuak) programa ezagutzeko saio baterako.

Datuen eskaera eta analisia

- Lanbideri eta Eustati eskaera ofiziala egitea 2022-2025 datuen inguruan: kontratu-kopurua, parte-hartzaileen profilak, soldata-mediana eta eragina.
- Datuak jaso ostean, Excel edo Python erabiliz analizatzea: joera-grafikoak eta eraginkortasun-tasa kalkulatzeko.
- Oinarri fidagarria sortzea txostenerako datu estatistikoekin.

Analisi sakonagoa

- Gazte-elkarteen, sindikatuen eta parte-hartzaileen inkesta eta elkarteak egitea, soldata-kritikak eta hobekuntza-proposamenak biltzeko.
- Konparazio-analisia egitea beste erkidegoekin, SWOT matrizea osatuz eta intzidentzia politikoaren aukerak aztertuz.
- Aritu-taldearekin saioa antolatzea programa eraldatzeko ideiak sortzeko.

Emitzen ondorioak eta EGKren diskurtsoa

- Txosten-zati honetan datuak eta analizen ondorioak laburbiltzea, 5 proposamen zehatz aurkezteko.
- EGKren diskurtsoa aberasteko, lan duinaren garrantzia azpimarratuz eta gazteen ahotsa txertatuz.
- 2026ko Urriaren 7an txostena zabaltzea, Lan Egokiaren Nazioarteko Eguna dela eta, prentsa-oharra eta ekitaldi publikoarekin.

2.5 Nazioarteko egunak:

EGK-k bere diskurtsoa gizarteratzeko eta aldarrikapenak zabaltzeko urtean zehar ematen diren nazioarteko egunez baliatzen da. 2026. urtean egutegia osatzen jarraituko du eta data esanguratsuetan dagokion manifestua eta komunikazio kanpaina eramango ditu aurrera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

2026. urtean zehar enpleguarekin zerikusia duten nazioarteko egunak markatzea eta egun horietaz baliatu EGKren manifestu edo diskurtsoa plazaratzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Nazioarteko egunean garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn partaidetza bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.
- Gazteriarekin zein gaiarekin harremanduta dauden elkarte ezberdin

Garapena

EKINTZAK:

- Maiatzak 1, Langilearen Nazioarteko Eguna: langile gazteok ditugun lan eskubideen inguruko ikuspuntua sortu eta hori zabaldu.
- Maiatzak 8, gazte bekarioen nazioarteko eguna izanik, urteko lehenengo zatian egin den estatutuaren lanketa plazaratzea eta intzidentzia politikoa egitea
- Gazteen espektatibak modu kualitatiboan jasotzea
- Urriak 7, lan egokiaren nazioarteko egunean, urtean zehar lehen aukera programaren inguruko analisisa zabaltzea gure sare sozialen bitartez
- Urriak 15, emakume landatarren nazioarteko eguna izanik, lehen sektorean EGK sortzen ari den diskurtsoa plazaratzeko eguna izango da genero perspektiba txertatuz

Ebaluazioa

- Egindako kanpainen difusio maila eta hedapena.
- Komunikabide eta gizarte eragileen zein gazteen atentzioa eman izana.
- Hurrengo urtera begira egon daitekeen egun garrantzitsu berri baten identifikazioa egitea

2.6 Harremanak eragileekin

Enpleguko alorrean eragile askok eta anitzek dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta Etxebizitza arloan lan egiten duten elkarten, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren ikuspuntu bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuek proiektuetan, horretarako, EGK erreferente bihurtuta.
- EGK-ko proiektuetan gazte berrien parte hartzea lortzea.
- EGK-ko elkarten artean etxebizitza lantzen dutenekin harremana sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

- EGK-koak diren eta EGK-koak ez diren elkarten artean gazteen parte hartzea bultzatu emantzipazio proiektuetan.
- EGKrentzat interesgarriak diren proiektu eta jardunaldietan parte hartu.
- Enpleguaren arloan EGK-k landu ez dituen arazoak dokumentatu.
- Bildutako informazioarekin EGKren diskurtsoa elikatu.
- Lan istripuen ondoriozko gazteen heriotzen eta istripuen berri izatea

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin biltzea.
- Egindako kontaktu berri kopurua.
- EGK eragile ezagun horien artean ezagutzera

3. HEZKUNTZA



Gazteen hezkuntza-ibilbidea hainbat esparrutan garatzen da. Hezkuntza formalak (Batxilergoak, Lanbide Heziketak eta unibertsitateak) funtsezko zeregina du gazteen ezagutza, gaitasun profesionalak eta etorkizuneko aukerak eraikitzeko. Hala ere, oraindik erronka handiak daude hezkuntza sistema egokitze, ibilbideen arteko trantsizioak errazteko eta gazte guztientzat aukera berdintasuna bermatzeko.

Horrez gain, hezkuntza ez-formalak ere ekarpen garrantzitsua egiten dio garapen pertsonal eta sozialari, bereziki boluntariotzaren bidez eskuratzen diren ikaskuntzen bitartez. Boluntariotzak balioak lantzeko, gaitasun sozialak garatzeko eta erantzukizun kolektiboa sustatzeko aukera ematen du, gazteak gizartearekiko konpromisoa duten herritar aktibo gisa heziz.

Azkenik, euskaraz ikasteko eta bizitzeko eskubidea bermatzea ezinbestekoa da hezkuntzaren biziberritzerako eta gazteen identitatearen garapenerako. Horregatik, euskarazko hezkuntza-eskaintza etapa guztietan indartzea beharrezkoa da, bereziki goi-mailako ikasketetan. EGK-ko

Hezkuntza lan-arlotik, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko osagarritasuna defendatzen jarraituko dugu, gazte guztientzako hezkuntza inklusibo, eskuragarri eta euskarazkoa bermatzeko.

3.1 HEZKUNTZA FORMALA

3.1.1 Eskola kontseilua

Azken urteotan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak presentzia egonkorra eta aktiboa izan du Euskadiko Eskola Kontseiluan, gazteen ahotsa hezkuntza-sistemako erabaki gune nagusietara eramateko helburuarekin. Parte-hartze horren bidez, ikasleak ez dira soilik hezkuntza-politiken hartzaile izan, baizik eta eztabaida eta proposamenen erdigunean kokatu dira, hezkuntza komunitateko eragile gisa.

Hala ere, erronka nagusietako bat izaten jarraitzen du ikasleen behar eta errealitateen berri modu sistematikoa jasotzeak eta administrazioaren erabakietan benetako eragina izateak. Horregatik, beharrezkoa da orain arte egindako lana sendotzea, Eskola Kontseiluko espazioetan parte-hartze kualitatiboa indartuz eta gazteen ekarpenek jarraipena eta itzulera izan dezaten bermatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Eskola Kontseiluan EGK-ren parte-hartze aktiboa eta estrategikoa sendotzea, ikasleen ahotsa hezkuntza-politiketan eragile bihurtzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eskola Kontseiluko eztabaida eta dokumentu nagusietan gazteen ikuspegia txertatzea.
- Euskadin hezkuntzan garatzen diren arauak eta hezkuntza-egoerari buruzko txostenetan hobekuntza-proposamenak egitea.
- Ikasleen behar, iritzi eta kezkak lehen pertsonan jasotzea eta sistematizatzea.
- EGK-ren presentzia eta aitortza indartzea Eskola Kontseiluko batzorde eta espazioetan.
- Administrazioarekin kontraste eraginkorrak sustatzea, gazteen ekarpenek benetako eragina izan.

Garapena

EKINTZAK:

- Euskadiko Eskola Kontseiluko osoko bilkuretan parte hartzea, eztabaida eta bozketetan ekarpenak eginez.
- Batzorde iraunkorretan eta lantalde espezifikoetan parte-hartze aktiboa mantentzea.
- Azken irizpen, araudi eta dokumentuen jarraipen teknikoa egitea.
- Ikasleen partaidetzari buruzko hausnarketa-prozesuak sustatzea, haien ahotsak zuzenean jasoz.
- Beste eragile eta instituzio batzuekin lan koordinatua egitea, ikuspegi partekatuak eraikitzeko.
- EGK-ren posizionamenduak dokumentu estrategikoetan eta arau-proposamenetan txertatzea.

Ebaluazioa

- Aurkeztutako ekarpenen kontrastea egitea Eskola Kontseiluaren dokumentuetan izan duten eraginarekin.
- Batzordeetan eta Osoko Bilkuretan izandako parte-hartzearen jarraipen sistematikoa egitea.
- Administrazioaren erantzunen eta itzuleren balorazioa egitea.
- Gazteen errealitatetik abiatutako ekarpenen koherentzia eta egokitasuna aztertzea.

3.1.2 Bilbo unibertsitate hiria

Azken urteetan, Bilbok unibertsitate-hiria izateko duen potentziala gero eta nabarmenagoa da, bai ikasle kopuruari dagokionez, bai eskaintza akademikoaren aniztasunari dagokionez. Hala ere, oraindik badaude erronka garrantzitsuak unibertsitateko ikasleen eguneroko esperientzia sakon ezagutzeko, haien beharrei modu egokian erantzuteko eta hiria benetan gazteentzat erakargarria izan dadin. Testuinguru honetan, funtsezkoa da ikasleen pertzepzioa modu sistematikoan jasotzea: nolakoa den Bilbo ikasle gisa bizitzeko hiria, zer ulertzen duten “hiri unibertsitario” kontzeptuarekin, eta zer baldintzek eragiten duten talentua bertan geratzeko edo beste leku batzuetara joateko erabakian.

Iaz hasitako lan-ildoari jarraipena emanez, proiektu honek unibertsitateko ikasleen ahotsa modu egituratuan eta zuzenean erdigunean jartzea du helburu. Ez da soilik datuak biltzea bilatzen, baizik eta ikasleen bizipenak, pertzepzioak eta etorkizunerako nahiak ulertzea, haien bizi-proiektuak baldintzatzen dituzten faktore nagusiak identifikatuz. Horretarako, Bilboko unibertsitate-zentro

guztien errealitate anitzak kontuan hartuko dituen ikuspegi integrala landuko da, ikasleen jatorria, bizi-baldintzak, ikasketa-motak eta egoera pertsonalak aintzat hartuz. Galdetegi bidezko azterketa kuantitatiboa izango da oinarria, baina hori osatzeko, hezkuntza arloko profesionalekin egingo den kontraste kualitatiboa funtsezkoa izango da, ikasleen diskurtsoak testuinguruan kokatzeko eta sakontzeko. Gainera, ikasleen bizi-baldintzetan eragin zuzena duen ardatz nagusietako bat etxebizitza denez, proiektua Etxebizitza lan-arloarekin elkarlanean garatzen da; lankidetzak horrek aukera emango du ikasleen emantzipazio-aukerak, alokairuaren egoera eta hiriak eskaintzen dituen baldintza materialak modu zehatzagoan aztertzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bilboko unibertsitateko ikasleen pertzepzioa ezagutzea, hiri unibertsitarioaren eredua, bizi-baldintzak eta talentuaren atxikipena aztertuz, gazteen ikuspegitik etorkizuneko hiri-ereduari proposamenak egiteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko unibertsitateko ikasleen pertzepzioa neurtzea hiriaren inguruan eta ikasle gisa bizitzeko baldintzei dagokienez.
- “Hiri unibertsitarioa” kontzeptuaren inguruko irudikapenak eta itxaropenak identifikatzea.
- Talentua Bilbon mantentzea baldintzatzen duten faktore nagusiak aztertzea.
- Unibertsitate-zentro desberdinetako errealitateak eta beharrak kontrastatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Parte-hartzea sustatzeko, komunikazio-kanpaina espezifiko bat garatuko da EGK-ren ohiko komunikazio-kanalen bidez, galdetegia betetzera animatzeko zozketa batekin lagunduta.
- Aldi berean, EGK-k bilera presentzialak egingo ditu Bilbon unibertsitate-ikasketak eskaintzen dituzten zentroetako ikasketa-buruekin, ikasleen errealitatearen inguruko informazio kualitatiboa jasotzeko eta galdetegiaren helburuak partekatzeko.
- Bilera horiek aprobetxatuz, ikasgeletan presentzia zuzena egingo da, proiektuaren azalpena emanez eta ikasleen inplikazioa sustatuz, gutxi gorabehera 350-500 erantzun jasotzea helburu hartuta.

- Bildutako informazio kuantitatiboa eta profesionalekin egindako kontrastearen emaitzak sistematizatu egingo dira, eta horien guztien emaitza gisa dossier bat landuko da, ikasleen pertzepzioak, proposamenak eta etorkizunerako ideiak jasoz.
- Proiektuaren garapen osoa eta azken emaitzen argitalpena modu aktiboan komunikatuko dira EGK-ren komunikazio-bideen bidez, ikasleen ahotsari ikusgarritasuna emanez.

Ebaluazioa

- Jasotako erantzunen kopuruaren, profilen eta zentroen arteko aniztasunaren jarraipen sistematikoa egitea.
- Ikasleen ekarpenen eta hezkuntza arloko profesionalen balorazioen arteko kontrastea egitea.
- Datu kuantitatiboen eta ekarpen kualitatiboen arteko koherentzia aztertzea.
- Dossierrean jasotako proposamenen bideragarritasunaren eta aplikagarritasunaren balorazioa egitea.

3.1.3 Deustuko Unibertsitatearekin harremanak

Azken urteotan EGK-k Deustuko Unibertsitatearekin eraikitako lankidetza-ildoari jarraipena ematen dio proiektu honek, orain arte egindako lana sendotuz eta metodologia hobetuz. Esperientzia metatu horretatik abiatuta, lankidetza hauek ez dira soilik harreman puntual gisa ulertzen, baizik eta denboran iraungo duten lan-ildo estrategiko gisa. Helburua da unibertsitateko ezagutza akademikoa eta gizarte-errealitatearekiko konpromisoa modu egituratuan lotzea, ikaskuntza-prozesuak testuinguru errealean kokatuz eta ikasleen inplikazio aktiboa sustatuz.

Donostiako campusean: Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatearekin elkarlanean, Gizarte Aldaketa Herriartasuna ikasgaiaren kokatutako gizarte-inkidentziako proiektu bat tutorizatzen da. Proiektu honen bidez, ikasleek ikasgelan lantzen dituzten eduki teorikoak praktikara eramaten dituzte, gizarte-errealitate zehatz bati erantzuten dion esku-hartze baten diseinua eta garapena eginez. Tutoretza-prozesuan zehar, ikasleek tresna metodologikoak eskuratzen dituzte, talde-lana, analisi kritikoa eta erantzukizun soziala landuz, eta ikaskuntza akademikoa konpromiso sozialarekin lotzen dute.

Bilboko campusean: Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle doktoreekin eta ikasleekin batera, parte-hartzearen eta boluntariotzaren inguruko ikerketa-prozesu kualitatibo batean parte hartzen da. Iaz abiatutako lan honi jarraipena emanez, aurreko sakontze-fase batean dago proiektua, ikasketak amaitzen ari diren bi ikasleren inkorporazioarekin batera. Une honetan, ikerketaren diseinu metodologikoa lantzen ari da, ikuspegi teorikoak, azterketa-tresna kualitatiboak eta errealitate sozialaren irakurketa uztartuz. Prozesu honek aukera ematen du ikasleek ikerketa aplikatuan esperientzia esanguratsua izateko, eta, aldi berean, gazteen parte-hartzeari eta boluntariotzari buruzko ezagutza sakon eta testuinguruduna sortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitatearekin elkarlana sendotzea, unibertsitateko ikaskuntza-prozesuak gizarte-erlaketarekin eta gazteen parte-hartzearekin lotuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Unibertsitateko ikasleen prestakuntza teoriko, praktiko eta metodologikoa indartzea, testuinguru errealean oinarritutako proiektuen bidez.
- Gizarte-inkidentziako eta ikerketa-prozesuetan ikasleen inplikazio aktiboa sustatzea.
- Parte-hartzearen eta boluntariotzaren inguruko ezagutza kualitatiboa sortzea eta sistematizatzea.
- Metodologia berritzaileak lantzea, ikaskuntza akademikoa eta konpromiso soziala uztartuz.
- Unibertsitatearen eta EGK-ren arteko harreman estrategikoa sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Donostiako campusean, Gizarte Aldaketa Herritartasuna ikasgaiaren garatzen diren gizarte-inkidentziako proiektuen tutoretza egitea, ikasleekin batera beharrak identifikatuz, helburuak definituz eta esku-hartze proposamenak diseinatzuz.
- Ikasleen ikaskuntza-prozesuan laguntzea, eduki teorikoak, tresna metodologikoak eta analisi soziala uztartuz.

- Bilboko campusean, parte-hartzeari eta boluntariotzari buruzko ikerketa kualitatiboaren diseinuan eta garapenean parte hartzea, marko teorikoa, ikerketa-galderak eta azterketa-tresnak definituz.
- Ikerketa-prozesuan ikasleen inplikazioa sustatzea, ikerketa aplikatuan esperientzia esanguratsua izan dezaten.
- Bi campusetan garatutako esperientzien arteko kontrastea egitea, ikaskuntza komunekeko elementuak identifikatzeko.
- Sortutako ezagutza EGK-ren lan-ildoetan, diskurtsoetan eta etorkizuneko proposamenetan txertatzea

Ebaluazioa

- Ikasleen inplikazio-mailaren eta ikaskuntza-prozesuaren jarraipen sistematikoa egitea.
- Tutorizatutako proiektuen eta ikerketa kualitatiboaren emaitzen kontrastea egitea.
- Irakasleekin eta ikasleekin egindako balorazio-saioen bidez, metodologiaren egokitasuna aztertzea.
- Sortutako ezagutzaren koherentzia eta aplikagarritasuna baloratzea.

3.1.4 Hezkuntza zubiak

Hezkuntza Zubiak proiektua Bizkaian garatuko da, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleen hezkuntza-sistematikiko pertzepzioa aztertzeko helburuarekin. Proiektuaren bidez, ikasleen ahotsa modu zuzenean jasoko da, haien bizipenak, kezkak eta balorazioak kontuan hartuz, hezkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko irakurketa errealista egiteko.

Bildutako informazioarekin, ikasleen ekarpenetan oinarritutako proposamen zehatzak formulatuko dira, eta horiek txosten batean jasoko dira. Txostena Ikasleen Nazioarteko Egunean argitaratuko da, ikasleen ahotsari ikusgarritasuna emateko. Prozesuan zehar, hezkuntza-sisteman dagoen aniztasunaren presentzia eta aniztasun horren ordezkartza ere aztertuko dira, ikasleen pertzepziotik abiatuta.

Helburuak

[HELBURU OROKORRA:](#)

Bizkaiko Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleen hezkuntza-sistemarekiko pertzepzioa aztertzea, haien ahotsetik abiatuta proposamen errealistak formulatzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ikasleen bizipenak eta balorazioak jasotzea hezkuntza-sistemaren inguruan.
- Batxilergoko eta Lanbide Heziketako errealitateak kontrastatzea.
- Hezkuntza-sisteman aniztasunak duen presentzia eta ordezkaritza aztertzea.
- Ikasleen ekarpenetatik abiatuta proposamen zehatzak formulatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Prozesuaren diseinua egingo da, eta hezkuntza-eragileekin kontrastea egingo da urtariletik martxora.
- Ikastetxeekin harremana eta aurretiko bilerak egingo dira martxoa, apirila eta maiatza bitartean.
- Ikasleekin bilerak egingo dira irailetik urrira, haien ahotsa zuzenean jasotzeko.
- Bildutako informazioa sistematizatu eta emaitzak jasoko dituen txostena egingo da.

Ebaluazioa

- Prozesuaren garapenaren jarraipena egingo da fase bakoitzean.
- Ikasleen ekarpenen eta hezkuntza-eragileen balorazioen arteko kontrastea egingo da.
- Jasotako informazioaren koherentzia eta erabilgarritasuna baloratuko dira.

3.1.5 Hezkuntza formaleko Nazioarteko Eguna

Ikasleen Nazioarteko Eguna hezkuntza-sisteman ikasleen ahotsa erdigunean jartzeko aukera gisa baliatuko da. Testuinguru honetan, Hezkuntza Zubiak proiektuaren emaitzak plazaratuko dira, Bizkaiko Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleen pertzepzioak eta ekarpenak ikusgarri eginez. Egun honek ikasleen bizipenak aitortzeko eta haien iritzia hezkuntza-politiketarako erreferentzia gisa kokatzeko balio izango du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Ikasleen ahotsa eta hezkuntza-sistemarekiko duten pertzepzioa ikusgarri egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ikasleen ekarpenak eta bizipenak publikoki plazaratzea.
- Hezkuntza-sistemaren inguruko hausnarketa sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Hezkuntza Zubiak proiektuaren emaitzak jasotzen dituen txostena argitaratuko da.
- Ikasleen ekarpen nagusiak komunikazio-kanalen bidez zabalduko dira.
- Ikasleen Nazioarteko Egunarekin lotutako komunikazio-ekintza bat egingo da.

Ebaluazioa

- Ikasleen eta hezkuntza-eragileen itzulera kontrastatuko da.
- Egunaren balio sinboliko eta komunikatiboa baloratuko da.

3.2 HEZKUNTZA EZ FORMALA

3.2.1 Campamento en el Parlamento

“Campamento en el Parlamento” proiektua EGK-ren 40. urteurrenaren testuinguruan kokatzen da, eta gazte-antolakundeek eta erakunde publikoen arteko harremana sendotzea du xede. EGK-ren sorrera formala Parlamentuari estuki lotuta egon zenetik, proiektu honek balio sinboliko berezia du, gazte-antolakundeek ibilbidea, ekarpena eta gaur egungo erronkak espazio instituzional nagusietara eramanez. Urteurren honek aukera ematen du egindako bidea aitortzeko ez ezik, etorkizuneko erronkei begirako ikuspegi partekatua eraikitzeko ere.

Proiektua ez da ekintza puntual gisa planteatzen, baizik eta prozesu egituratu eta sekuentziatu gisa. Helburua da gazte-antolakundeek instituzioen funtzionamendua ezagutzea, elkarriketa horizontalerako eta eragin politikorako gaitasunak lantzea, eta EGK-ren zubi rola indartzea gazteen eta ordezkaritza politikoaren arteko harremanetan. Ikuspegi horretatik, ikaskuntza instituzionala, esperientzia pedagogikoa eta elkarriketa politikoa uztartuko dituen dinamika bat garatuko da, gazte-antolakundeek protagonismoa erdigunean jarri.

Proiektua EGK-ko astialdi lan-arloarekin elkarlanean egingo da, astialdiko elkarteek eta hezkuntza ez-formaleko eragileek duten esperientzia pedagogikoa eta parte-hartzailearekin lotutako

jakintza txertatuz. Astialdiaren ikuspegitik, prozesuak hezkuntza-balioa, esperientzia kolektiboa eta ikaskuntza partekatua indartuko ditu, gazte-antolakundeen eguneroko errealitatetik abiatuta instituzioekiko harremana lantzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazte-antolakundeen gaitasun politikoa eta instituzioekiko harremana indartzea, EGK zubi eta bitartekari gisa kokatuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte-antolakundeen eta instituzioen arteko harremana sendotzea.
- Gazteak erakunde publikoen funtzionamendura hurbiltzea.
- Gazte-antolakundeen arteko sare-lana eta elkar-ezagutza sustatzea.
- Elkarriketa politikorako eta instituzioekiko harremanetarako gaitasunak lantzea.
- Gazteen parte-hartze politikoaren ikusgarritasuna handitzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Proiektua bi jardunaldi jarraitan egituratuko da, sekuentzia pedagogiko eta politiko argi batekin.
- Lehen fasean, prestaketa-jardunaldi bat egingo da Parlamentutik kanpo, gazte-antolakundeekin lan eginez, erronka partekatuak identifikatzeko eta testuinguru instituzionala ulertzeko.
- Jardunaldi horretan, lan kolektiboa egingo da, gazteen kezak, lehentasunak eta ikuspegiak partekatzeko, metodologia parte-hartzaileen bidez.
- Bigarren fasean, jardunaldi nagusia Parlamentuan garatuko da, instituzioaren funtzionamendua ezagutzeko eta gazte-antolakundeak espazio instituzionalean kokatzeko.
- Jardunaldi horretan, elkarriketa eta kontrasterako espazioak sortuko dira, esperientzia politiko eta instituzionalaren ikuspegi pedagogikoa landuz.

- Prozesu osoan zehar, EGK-k koordinazio-, bitartekaritza- eta berme-lana egingo da, dinamikaren koherentzia politikoa eta egokitasun instituzionala ziurtatzeko.

Ebaluazioa

- Prozesuaren garapenaren jarraipen jarraitua egingo da fasez fase.
- Parte-hartzaileen balorazio kualitatiboa jasoko da, ikaskuntzei eta bizipenei buruz.
- Gazte-antolakundearen eta instituzioen arteko elkarriketaren kalitatea kontrastatuko da.
- Sortutako espazioen erabilgarritasuna eta hezkuntza-balioa aztertuko dira.
- Proiektuaren balorazio orokorra egingo da etorkizuneko edizioetarako hobekuntza-ildoak identifikatzeko.

3.2.2 Gazte eraldatzaileak

Gazte eraldatzaileak EGK-ren formakuntza-planaren barruan kokatzen den **lerro berria** da, eta boluntariotzan eta elkartegintzan diharduten gazteak aldaketa-eragile gisa indartzea du helburu. Proiektu honen bidez, formakuntza puntualetatik harago joango den proposamen bat garatuko da, denboran jarraitutasuna izango duena eta periodikotasun jakin batekin gauzatuko dena, gazteei tresna teoriko, praktikoa eta metodologikoak eskaintzeko.

Lerro honek formakuntza jarraitua eskaintzea bilatzen du, Euskadiko elkarte eta boluntariotza-eremuetan eragin erreala sortzeko gaitasuna duten pertsonak formatzeko. Proiektua ikuspegi feminista eta intersektionaletik landuko da, eta aniztasuna lan-arloarekin elkarlanean egingo da, desberdintasunen arteko gurutzaketak kontuan hartuko dituen irakurketa kritikoa txertatuz. Formakuntza-prozesuan, pertsona gazte formatzaile baten parte-hartzea aurreikusten da, gazteen arteko ikaskuntza, hurbiltasuna eta erreferentzialtasuna indartzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Boluntariotzan eta elkartegintzan diharduten gazteak aldaketa-eragile gisa formatzea, formakuntza jarraitu baten bidez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteei ikuspegi feminista eta intersektionala eskaintzea, gizarte-desberdintasunak ulertzeko.

- Elkarreetako barne-dinamikak modu kritikoan aztertzeko gaitasuna lantzea.
- Autodiagnostikorako tresna metodologikoak eskaintzea.
- Erakundeetan aldaketa-prozesuak diseinatzeko eta abiarazteko gaitasunak indartzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Formakuntza-ibilbide egituratu eta jarraitu bat diseinatuko da, ikuspegi feminista eta interseksionalean oinarrituta, eta elkartegintzaren eta boluntariotzaren eguneroko errealitatera egokituta. Ibilbide honek hainbat saio izango ditu, denboran zehar sakontze progresiboa ahalbidetuz.
- Saio bakoitzean eduki teorikoak landuko dira, generoari, aniztasunari, botere-harremanei, parte-hartzeari eta egitura sozialei lotutako kontzeptu nagusiak ulertzeko, betiere hizkera eskuragarri eta aplikagarria erabiliz.
- Eduki teoriko horiek ariketa praktikoekin eta talde-dinamikekin osatuko dira, parte-hartzaileen esperientzietatik abiatuta hausnarketa kolektiboa sustatzeko.
- Parte-hartzaileek beren elkarten funtzionamendua aztertzeko autodiagnostiko-prozesu bat egingo dute, barne-egiturak, harremanak, erabakiak hartzeko moduak eta eguneroko praktikak ikuspegi kritikotik irakurriz.
- Autodiagnostiko horretatik abiatuta, elkarre bakoitzerako egokitutako aldaketa-ildoak eta hobekuntza-proposamenak definitzen lagunduko da, errealistak eta aplikagarriak izan daitezen.
- Prozesuaren amaieran, esperientzia kolektibo esanguratsu bat egingo da, parte-hartzaileek egindako ibilbidea partekatzeko, ikaskuntzak kontrastatzeko eta sare-lana indartzeko.

Ebaluazioa

- Parte-hartzaileen jarraipena egingo da formakuntza-saioetan zehar.
- Ikaskuntza-prozesuaren balorazio kualitatiboa egingo da, saioz saio eta amaieran.

- Autodiagnostikoen eta diseinatutako aldaketa-proposamenen koherentzia kontrastatuko da.
- Parte-hartzaileen eta elkarten itzulera jasoko da, prozesuaren erabilgarritasuna baloratzeko.
- Proiektuaren ebaluazio orokorra egingo da

3.2.3 Errekurtso gida

Errekurtso Gida proiektua Bizkaian garatuko da, 2022an Foru Aldundiaren eta EGK-ren artean egindako errekurtso-gidaren jarraipen eta eguneratze gisa. Aurreko edizioak balio handiko tresna izan bazen ere, hainbat elkarte eta eragile kanpoan geratu ziren, eta horrek agerian utzi zuen gida berrikusteko eta eguneratzeko beharra.

Edizio berri honetan, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, elkarte-sarearen errealitatea modu zabalagoan jasoko duen gida egingo da. Helburua ez da soilik informazioa eguneratzea, baizik eta lan kolaboratiboan oinarritutako prozesu bat garatzea, elkarteek beraiek gidaren edukiaren parte izan daitezen. Horrez gain, formatu dinamikoago eta eskuragarriago baten alde egingo da, errekurtsoen erabilera errazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bizkaiko elkarte-sareari buruzko errekurtso-gida eguneratu eta osatua egitea, tresna erabilgarri eta eskuragarri gisa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan diharduten entitateak jasotzea.
- Elkarrekin lan kolaboratiboa egitea, informazioa kontrastatu eta eguneratzeko.
- Errekurtsoen aurkezpena dinamikoagoa eta erabilgarriagoa egitea.
- Elkarte-sarearen ikusgarritasuna eta ezagutza handitzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Aurreko gidaren azterketa egingo da, hutsuneak eta eguneratu beharreko edukiak identifikatzeko.

- Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan diharduten elkarten mapa eguneratua osatuko da.
- Elkarteekin harreman zuzena egingo da, informazioa biltzeko eta kontrastatzeko.
- Datuen bilketa modu kolaboratiboan egingo da, elkarten inplikazioa sustatuz.
- Errekurtso-gidaren egitura eta formatu berria diseinatuko da, erabilgarritasuna lehenetsiz.
- Gida amaitua formatu digitalean argitaratuko da, zabalkunde erraz eta dinamikoa bermatzeko.

Ebaluazioa

- Bildutako elkarten kopuruaren eta aniztasunaren jarraipena egingo da.
- Elkarteekin egindako kontraste-prozesuaren balorazioa egingo da.
- Gidaren erabilgarritasuna eta irisgarritasuna aztertuko dira.
- Parte hartu duten eragileen itzulera jasoko da.

3.2.4 Euskadiko Gazteak Lankidetzan

Aurten ere, EGK-k Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartuko du, aurreko urteetan garatutako lan-ildoari jarraipena emanez. Programaren bidez, kooperazioarekin eta lankidetzarekin lotutako proiektuetan parte hartuko duten gazteen hautaketa-prozesua garatuko da, ikuspegi pedagogikoa eta prozesuaren kalitatea bermatuz.

EGK-ren parte-hartzea ez da hautaketa-fase puntualetara mugatuko, baizik eta prozesu osoan zehar egingo da, gazteen profilak aztertuz, talde-dinamiken bidez gaitasunak identifikatuz eta hautatutako pertsonen laguntza emanez. Helburua da lankidetzaren balioak barneratzeko eta esperientzia esanguratsua bizitzeko baldintzak sortzea, gazteen motibazioa eta inplikazioa erdigunean jarritz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako kooperazio-proiektuetan parte hartuko duten gazteak hautatzea, kalitatezko prozesu baten bidez.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ren presentzia eta irismena Euskadiko gazteen artean indartzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutzea eta interesdunekin harremanak sendotzea.

- Gazteen arteko harremanak eta sare-lana sustatzea.
- Lankidetzaren eta kooperazioaren balioak gazteen artean hedatzea.
- Hautaketa-prozesuaren dimentsio pedagogikoa indartzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Hautaketa-prozesuaren lehen fasean parte hartuko da, izena eman duten gazteen aurre-hautaketa egiteko, hezkuntza-maila, motibazioa eta profila kontuan hartuta.
- Aurre-hautaketa bilerak egingo dira Lakuan, beste GGKE batzuekin batera, hautaketa-irizpideak adosteko eta parte-hartzaileen profilak kontrastatzeko.
- Hautaketa-prozesuaren bigarren fasea Barriako aterpetxean garatuko da, bi asteburutan zehar.
- Lehen asteburuan hautaketa presentziala egingo da, talde-dinamiken bidez, kooperazioarekin eta lankidetzarekin lotutako gaitasunak aztertuz.
- Bigarren asteburuan formakuntza-jardunaldi intentsiboa egingo da, hautatutako gazteekin, eduki pedagogikoak eta esperientzia kolektiboa uztartuz.
- Prozesu osoan zehar, EGK-ko teknikariak laguntza eta jarraipena egingo du, hautaketa-batzordeko kide gisa.

Ebaluazioa

- Hautaketa-prozesuaren fase guztien jarraipena egingo da, inplikazio-maila aztertuz.
- Parte-hartzaileen motibazioa eta prestutasuna kontrastatuko dira, hautaketa- eta formakuntza-faseetan.
- Udazkenean azken ebaluazio-topaketa egingo da, parte-hartzaileen esperientziak jasotzeko.
- EGK-ren parte-hartzearen balorazio orokorra egingo da.

3.2.5 Hezkuntza ez-formaleko Nazioarteko Egunak

Hezkuntza ez formaleko Nazioarteko Egunaren baitan, bi efemeride hauek baliatuko dira gazteen eguneroko errealitatearekin lotutako gai sozialak ikusarazteko. Azaroaren 5ean, bullyingaren aurkako egunean, jazarpenaren inguruko sentsibilizazioa landuko da; abenduaren 5ean, berriz, boluntariorzak gizartean eta hezkuntzan duen garrantzia balioan jarriko da.

Bullyingaren aurkako eguna (Azaroak 5)

Boluntariorzakaren Nazioarteko Eguna (Abenduak 5)

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza ez formalarekin lotutako erronka sozialak ikusaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bullyingaren aurkako sentsibilizazioa sustatzea.
- Boluntariotzaren garrantzia soziala eta hezitzailea ikusaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

- Azaroaren 5ean, bullyingaren aurkako sentsibilizazio-argitalpen bat egingo da, Ehunbide Fundazioarekin elkarlanean.
- Abenduaren 5ean, boluntariotzaren garrantzia ikusarazteko komunikazio-argitalpen bat egingo da.
- Bi egunak komunikazio-ildo berean landuko dira.

Ebaluazioa

- Argitalpenen irismena eta zabalkundea aztertuko dira.
- Jasotako itzulera kualitatiboa kontrastatuko da.
- Proiektuaren balio komunikatiboa baloratuko da.

3.2.6 Eragileekin koordinazioa

Hezkuntza lan-arloan, administrazioekin eta hezkuntza-esparru formal zein ez-formaleko eragileekin koordinazio egonkorra lantzen jarraituko da. Koordinazio-lan horiek hezkuntza-politiketan eragiteko, informazioa kontrastatzeko eta proiektu bateratuak garatzeko funtsezko tresna izango dira, sare-lana indartuz.

Aldi berean, urtean zehar beste espazio eta foroetan izandako parte-hartzeak modu sistematikoan jasoko dira, koordinazio-maila eta harremanen intentsitatea neurtu ahal izateko. Horrela, ebaluazio kuantitatiboak egiteko oinarri sendoagoa eraikiko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Administrazioarekin eta hezkuntza-eragileekin koordinazio egoki eta egonkorra bideratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Administrazioekin eta hezkuntza formal zein ez-formaleko eragileekin harremana mantentzea.
- Hezkuntza-eragileen arteko zubi-lana egitea.
- Beste espazioetan egindako parte-hartzeak sistematizatzea, ebaluazio kuantitatiboa ahalbidetzeko.

Garapena

EKINTZAK:

- Urte osoan zehar koordinazio-lanak egingo dira administrazioekin eta hezkuntza-eragileekin, bilerak, lan-saioak eta komunikazio-kanalak erabiliz.
- Eusko Jaurlaritzarekin, Aldundiekin eta beste entitate, fundazio eta sareekin elkarlana garatuko da, bai hezkuntza formalari bai hezkuntza ez-formalari lotutako ekimenetan.
- Komisio, sare eta foro desberdinetan egindako parte-hartzeak erregistratu eta sistematizatuko dira, datu-base komun batean jasoz.

Ebaluazioa

- Identifikatutako eragileekin izandako harremanen jarraipena egingo da.
- Koordinazio-ekintzen kopurua eta maiztasuna aztertuko dira, ikuspegi kuantitatibotik.

3.3 EUSKARA ETA HIZKUNTZA-ANIZTASUNA

3.3.1 Migrazio Foroa

Euskara inklusiorako tresna gisa lantzen jarraituko da, hizkuntza-aniztasuna eta migrazio-errealitateak kontuan hartuta. EGK-k Migrazio eta Asilo Euskal Foroko Euskara eta Hizkuntza Aniztasun Batzordean duen parte-hartzearen bidez, gazteen ikuspegia txertatuko da hizkuntza-politikei eta sustapen-ekimenei dagokienez, ikuspegi integratzaile eta eraldatzailetik.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskara gazteen arteko inklusiorako eta kohesiorako tresna gisa sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hizkuntza-aniztasunaren kudeaketari buruzko ekarpenak egitea.
- Gazteen ikuspegia txertatzea euskara sustatzeko ekimenetan.

Garapena

EKINTZAK:

- Migrazio eta Asilo Euskal Foroko Euskara eta Hizkuntza Aniztasun Batzordean parte hartzea.
- Hizkuntza-aniztasunari eta euskararen sustapenari lotutako proposamenak lantzea.
- Beste eragileekin kontrastea egitea, ikuspegi inklusiboa indartzeko.

Ebaluazioa

- Batzordean egindako ekarpenen jarraipena egingo da.
- Sortutako proposamenen koherentzia eta erabilgarritasuna kontrastatuko dira.
- Parte-hartzearen balio erantsia baloratuko da, gazteen ikuspegitik.

3.3.2 Korrika 2026

Korrika euskararen aldeko ekimen kolektibo eta sinboliko nagusietako bat da, eta belaunaldi belaunaldi hizkuntzarekiko konpromisoa transmititzeko funtsezko espazioa. Gazteen parte-hartzerako aukera ematen duen ekimen gisa, Korrikak euskararen erabilera soziala, ikusgarritasuna eta aktibazioa uztartzen ditu, lurralde osoan zehar sortzen den dinamika bateratu baten bidez.

Testuinguru honetan, EGK-k Korrika 2026 babestu eta bertan parte hartuko du modu aktiboan, gazteen inplikazioa sustatzeko eta euskararekiko konpromisoa indartzeko. EGK-tik, Korrika ez da soilik ospakizun edo ekimen sinboliko gisa ulertzen, baizik eta gazteak aktibatze, sareak ehuntzeko eta euskararen aldeko mezua modu kolektiboan zabaltzeko aukera gisa.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen artean euskararekiko konpromisoa eta Korrika 2026an parte-hartze aktiboa sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Korrikaren balio sozial, kultural eta sinbolikoa azpimarratzea.

- Gazteen parte-hartzea eta aktibazioa indartzea.
- EGK-ren babesa eta presentzia ikusgarri egitea euskararen aldeko ekimenetan.

Garapena

EKINTZAK:

- Korrika 2026ren inguruko komunikazio-ekintzak egingo dira EGK-ren kanaletan, gazteei parte hartzera animatzeko.
- Gazteen parte-hartzea errazteko ekimenak bultzatuko dira, ikuspegi ireki eta inklusibotik.
- EGK-k Korrikan modu aktiboan parte hartuko du, gazteen presentzia antolatuz eta babestuz.

Ebaluazioa

- EGK-ren parte-hartzearen jarraipena egingo da.
- Gazteen inplikazio-maila eta aktibazioa kontrastatuko dira.

3.3.3 Euskara eta hizkuntza-aniztasuneko Nazioarteko Egunak

Euskara eta hizkuntza-aniztasuneko nazioarteko egunen harira, hizkuntza-eskubideei, aniztasun linguistikoari eta euskararen gizarte-funtzioari buruzko hausnarketa bultzatuko da. Irailaren 26an, hizkuntza gutxituen errealitatea eta aniztasun linguistikoaren aitortza jarriko dira erdigunean; abenduaren 3an, berriz, euskararen eguna baliatuko da euskararen erabilera, transmisioa eta biziberritzearen garrantzia azpimarratzeko.

Hizkuntza gutxituen eguna (Irailak 26)

Euskararen eguna (Abenduak 3)

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskara eta hizkuntza-aniztasunarekin lotutako erronkak ikusaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hizkuntza-aniztasunaren balioa eta hizkuntza gutxituen egoera aitortzea.
- Euskararen erabilera eta balio soziala sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Irailaren 26an, hizkuntza-aniztasunari eta hizkuntza gutxituen egoerari buruzko komunikazio-argitalpen bat egingo da.
- Abenduaren 3an, euskararen erabilera eta balioa sustatzeko komunikazio-argitalpen bat egingo da.
- Bi egunetan mezu bateratua landuko da, hizkuntza-eskubideen ikuspegitik.

Ebaluazioa

- Argitalpenen irismena eta zabalkundea aztertuko dira.
- Jardueren balio komunikatiboa baloratuko da.

4. ASTIALDIA



Gazteen astialdia, parte-hartze eta garapen pertsonalerako funtsezko espazioa da, eta bereziki astialdi taldeek paper garrantzitsua dute balioak transmititzen, komunitatea sortzen eta gazteen ongizatea sustatzen. Hala ere, baliabide faltak eta egiturazko zailtasunek astialdi hezitzailearen garapena baldintza dezakete. EGK-ko Astialdi lan-arlotik, astialdi taldeen lana aitortu eta indartzen jarraituko dugu, gazte guztientzako astialdi hezitzaile, inklusibo eta eskuragarriaren alde lanean.

4.1 Udako ekintzen kanpaina 2026

EGKtik bidelaguntza eta difusioa ematen jarraitu da arlo honetan dabiltzanen astialdi elkarteei, egunerokotasunean dituzten ekintzak oinarrian jarrita. Elkarrekin burutzen dituzten ekintzak ugariak dira, eta hauen sozializazioa ezinbestekoa da. Halaber, haien ekintzak aurrera eramateko baliagarriak izan daitezkeen tresnen (mapak, zerrendak, etab.) eratze-prozesuarekin jarraitu da.

Hari beretik, astialdi talde, sare eta eskolen lana balioan jarri nahi izan da, gizartean eta bereziki gazteen artean, egiten diren ekintza eta formakuntza ezberdinak ezagutzera emanaz. Izan ere, hauen lana ikustarazteko ezinbestekoa da zabalpenean laguntzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi hezigarria osatzen duten eragileen ekintzei aintzatespena, balioa eta ikusgarritasuna ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Taldeen ekintzen berri egotea, haien lana balioan jartzeko.
- Astialdi taldeen egunerokotasuneko zein une zehatzetako (Gabonak, Aste Santua, uda...) ekintzen hedapena egitea.
- Astialdi taldeei baliagarriak izan daitezkeen tresnak zabaltzea.

Garapena

Udan, astialdiak duen presentzia bereziki nabarmena da. Irabazi asmorik gabeko astialdi taldeek eta mugimenduek haien ahalegina bikoizten dute kanpamenduak, udalekuak eta bestelako jarduerak antolatzeke. Aldi berean, familiek interes handia dute sasoi honetan astialdi hezigarriko jardueretan parte hartzeke. 2026an, Euskadiko hiru lurralde historikoetako astialdi taldeen jarduerak bilduko ditugu. EGK-ko gazte diseinatzaileen lan poltsatik hautatutako gazte diseinatzaile batek jarduera horiek biltzen dituen kartel bat sortuko du. Kartela EGKren webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da, prentsa-ohar batekin batera. Kanpainaren helburu nagusia izango da astialdi taldeek egiten duten lanari ikusgarritasuna ematea eta familiei zein gazteei udako aukera hezigarriak ezagutaraztea. Galdetegiaren bidez, taldeek antolatutako ekintzen berri eman ahal izango dute, eta kartela eta sare sozialen bitartez, informazioa modu zabalduan eta eskuragarrian partekatuko da. Hau lortzeko hurrengo ekintzak gauzatuko dira:

- Astialdi taldeen ekintzen bilketa: Euskadiko hiru lurralde historikoetako astialdi taldeen jarduerak jasoko dira. Horretarako, taldeei galdetegi bat bidaltzea informazioa biltzeko.
- Gazte diseinatzaile baten hautaketa: EGK-ko gazte diseinatzaileen lan poltsatik diseinatzaile bat aukeratuko da eta hautatutako diseinatzaileak kartela eta datu guztiak biltzen dituen zerrenda bat sortuko ditu.
- Kartela eta zerrendaren argitalpena eta zabalpena: Udako ekintzak jasoko dituen euskarri bisuala argitaratuko da eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko webgune eta sare sozialen bitartez zabalduko da.

Ebaluazioa

- EGKrekin harremanak dituzten astialdi taldeen ekintzen informazioa jasoko da, elkarte eta jarduera kopurua kontuan hartuz.
- Elkarteen inguruko informazioa bilduko da (burutzen dituzten ekintzak, egoera, kontaktua) EGK eta taldeen arteko harremanean sakondu ahal izateko.
- Ebaluazio irizpide bat izango da zabalpen hauetan zenbat talde parte hartzen duten.

4.2 Astialdi Foroa

Astialdi Foroa EAEko astialdiko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio eta bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sensibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere. Astialdi taldeak indartzeko prozesuan, taldeei jarraipena egingo zaie eta aurten baita haien beharrak asetzeko lan egingo da. Astialdi Foroko 3 lurraldeetako bilera eta taldeekin mantendu den harreman zein bidelaguntzari esker Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiaren ardatz nagusiak garatzen jarraituko dira. Babes eta laguntza indibidualizatua proposatuko zaie Astialdi Foroko partaide berri bakoitzari zuzenduta, kontrasterako zein partekatzeko talde topaketekin uztartuz baita ere. Beharren arabera, astialdi taldeak indartzeko plana martxan jarriko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi taldeak sartzeko espazio bat ahalbidetzea, astialdiko gaien inguruan hausnartzeko, astialdiko beharrak jasotzeko eta behar horiei erantzunak emateko astialdiko mugimendua indartuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi Foroko lan taldea koordinatzea eta sendotzea, taldeei jarraipena eginez eta haien beharrak asetuz eta elkarte zein eragileen arteko elkarlana sustatuz.
- Astialdiko Koordinazio Mahaian lantzen diren gai eta dokumentuei ekarpenak egitea, astialdi taldeen ahotsa helaraziz.
- EAE mailan astialdian garatzen diren arau eta egoeraren gaineko txosten orokorrei hobeak proposamenak egitea.

- Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiaren II. Ardatz traktorea gauzatuko da, hau da, Astialdi Foroko taldeei bidelagunduko zaie hurrengo aspektuetan: taldeen oinarritzko beharretan laguntzea, komunitate garapenean, balio hezkuntzan, euskara eta euskal nortasuna garatzeko gakoetan, hezkidetzan, inklusioan, garapen iraunkorreko helburuak aplikatzean edota berrikuntza prozesuetan, haiek eskatzen badute betiere.
- Haur eta nerabeen babesaren inguruan eta ildo honetan ezarriko diren protokoloen harira hausnarketa espazioak bideratuko dira Astialdi Foroan jorratzen diren beharrei erreparatuz.

Garapena

Astialdi taldeak indartzeko plana:

EGK-k astialdiko taldeei eta sareei laguntza teknikoa eskaintzen die; berez, aipatu beharra dago laguntza programa honek eta Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiak bat egiten dutela eta bateragarriak direla.

Alde batetik, talde berriek beren lan hezigarriari jarraipena eman diezaioten laguntza ematen jarraitu da. Behar zehatzagoei lagundu eta erantzuna eman zaie, beharren arabera, finkatzeko edo egokitzeko prozesuak abiaraziz edota egitura eta laguntza-sistemak indartuz. Halaber, beste eragile eta administrazio batzuekiko lankidetzaren eta sareko lana sustatzen jarraitu da, taldeen plangintza eta programazioa azpimarratuz, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko eta etorkizuneko ikuspegia izango duen proiektu egonkor bat lortzeko.

Bestalde, astialdian ibilbidea duten taldeekin lanketa ezberdina egingo da, talde hauen ezaugarrien artean, koordinazio-egitura antolatuko dira eta jarduera-eskaintza zabala abiatuko da. Talde horiekin jarduteko plana Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiarekin lerrokatzeko prozesuan laguntzea eta indartzea izango da. Proiektu berritzaileen, ekintzen eta proposamenen bidez, haien dimentsioak indartu nahi da, bai eta programazioak hobetu.

Erantzunei esker, talde bakoitzak planean aurreikusitako ekintzak betetzen dituen kontrolatu eta ebaluatuko da. Horrela, horien garapenari buruzko informazioa eta ebidentziak bildu eta eguneratuz. Era berean, talde bakoitzaren egoera ezagutzeko aukera emanez, eta beharrezko hobekuntzak edo aldaketak antzematen lagunduz.

Topaketak

- Astialdi Foroko talde bakoitzeko zenbait topaketa egingo dira, beharren arabera.
- Topaketetan taldeek aurkeztuko dituzte beren beharrak eta proiektuak.

- Topaketa hauetan eztabaida libreak eta solasaldiak egongo dira, elkartrukea sustatzeko

Ebaluazioa

- Astialdi Foroko talde bakoitzeko zenbat topaketa egin diren ebaluazio-irizpide bat izango da.
- Taldeekin harremana sendotu eta talde berriak identifikatu diren ala ez aztertuko da.
- Taldeekin mantendu den harremanari esker taldeen beharrak, gabeziak, interesak... bildu eta landu diren aztertuko da galdetegi baten bidez.
- Tratu onen txostena sortu den ala ez eta honen eragina.

4.3 Astialdiko Eskolen Foroa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) astialdi eskolekin mantendu duen elkarlana sendoa eta sakona izan da. Urteotan, astialdi eskolekin izandako harremanak proiektu komunak aurrera ateratzea ahalbidetu du eta ikuspuntu bateratuak ezarri dira administrazioen aurrean, eskolen arteko elkarlana indartuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi eskoletarako topagune bat ahalbidetzea zeinean partekatu, posizionamendu komunak eratu eta elkarren arteko saretzea indartu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdiko eskolen egungo egoera eta beharren inguruko hausnarketa gauzatzea.
- Astialdiko eskolei eragiten dieten dekretuen inguruan hausnartzea.
- Kalitatezko formakuntza sustatzea astialdiko eskolekin batera.

Garapena

EGK-k, aurtan, **Astialdiko Eskolen Foroa** sustatzen jarraitzen du, astialdi eskolentzako espazio bat izateko helburuarekin. Foro honek aukera ematen die eskolei elkarren artean konektatzeko eta astialdiko ikastaroen egungo errealitatearen inguruan hausnartzeko. Espazio hau eskolekin adostutako maiztasunarekin aktibatzen da, helburua izanik diskurtso eta posizionamendu bateratuak eraikitzea eta horiek eragiteko espazioetara eramatea. Lantalde honetatik hainbat ekintza sor daitezke (komunikazio-, prestakuntza- eta sustapen-ekintzak, besteak beste), astialdiko hezkuntza eta begirale-taldeen formakuntza beharra indartzeko.

Ebaluazioa

- Araudia berritzean aurrerapenik lortu den ebaluazio-irizpidetzat joko da.
- Astialdi eskolen beharrak kontuan hartu diren eta topaketak ahalbidetu diren ebaluazioirizpidetzat joko da.

4.4 Astialdiko formakuntzak: boluntarioritza eta elkartegintza

Euskadiko astialdiko taldeen beharrak aztertuz, taldeetan ematen den boluntarioritza ereduari lotutako problematika ezberdinak azalera atera egin ziren, beste batzuen artean, begirale boluntarioen antolamendua eta kudeaketa lanak. Egoera hauen aurrean, esku hartzeko moduak desberdinak dira, talde bakoitzaren errealitatea aztertzea eta modu indibidualean lanketak egitea garrantzitsua bada ere, **Astialdi Foroen** baitan batik bat, EGKn astialdian jarduten duten boluntarioei formakuntza teoriko-praktikoak eskaintzea erantzun egokia izan daitekeela defendatzen da. Horren ondorioz, azaldutako egoerei erantzuna emateko xedearekin formakuntza ezberdinak gauzatzea aurreikusi zen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza ez formaleko eragileei prestakuntza teorikoa ematea, beren hezkuntza-ekintza eta taldearen kudeaketa indartzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza ez formaleko eragile gazteen beharrak jasotzea, Astialdiko lan-arloko plangintzako aurreko ataletan azaldu den moduan.
- Behar horiei erantzuteko formakuntza ekintzak sustatu.
- Gazte boluntarioen jarduna balioan jartzea.

Garapena

Urtean zehar formakuntza ezberdinak burutuko dira astialdiarekin lotutako gaiak jorratzeko, formakuntza taldeak egonkortzeko biderik argiena dela ulertuz. Aurten, formakuntzak aurreko formatuan izango dira eta astialdi taldeen barne funtzionamenduarekin lotutako gaiak jorratuko dira, metodologia arinekin eta taldeen beharretara moldatuz.

Aniztasun funtzionala hezkuntza ez-formaleko espazioetan:

Formakuntza hau aurreko urtean gauzatu zen Bilbon eta Gasteizen eta arrakasta handia izan zuen, taldeek adierazitako behar bati erantzuten diolako. Aurten, Donostian errepikatuko da. Saioa Amesten Elkarteko adituek eskainiko dute.

Emozioen kudeaketa:

Taldearen barruan emozio biziak kudeatzeko estrategiak eskuratzera bideratutako formakuntza izango da. Helburua emozio-adierazpena errespetatzen eta laguntzen duten ingurune seguruak sustatzea da.

Udazkeneko eskola:

Asteburuko topaketa bat da, astialdiko taldeei zuzendua. Aterpetxe batean egingo da, eta profesional espezializatuek gidatutako formakuntza saioak eta dinamika parte-hartzaileak uztartuko ditu.

Ebaluazioa

- Astialdi taldeen behar formatiboak aztertuko da.
- Astialdi taldeen behar formatiboei erantzuteko ikastaroak antolatuko da.
- Astialdiko formakuntzak EGK-ko Formakuntza Planarekin lerrokatu eta koordinatuko da.

4.5 Erakundeekin hizketan. Topaketa Sailburuarekin

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) 40. urteurrenaren esparruan, proiektu hau astialdiari lotutako elkarte-ehunari zuzendutako prozesu espezifiko gisa egituratzen da, astialdi hezigarriari zuzenean eragiten dioten politika publikoetan eragiteko gaitasuna indartzeko helburuarekin.

Astialdia historikoki Euskadiko gazte-asoziazionismoaren zutabeetako bat izan dela aitortzetik abiatzen da proiektu hau. Era berean, parte hartzeko, sozializatzeko eta balioetan prestatzeko funtsezko gune bat izan da. Izan ere, EGK-ren historian, astialdi elkarteek zeregin nabarmena izan dute, eta, beraz, eremu hau estrategikotzat jotzen da, bai gizartean duen garrantziagatik, bai Kontseiluarekin duen lotura historikoagatik.

EGK-k gazte-elkarrizketarako organo gisa duen rola bere gain hartzen du, sektorea artikulatzeko gune gisa jokatzen du, eta proposamen kolektiboak, ordenatuak eta errealistak erakundeetara bideratzeko agente bideratzaile gisa. Proiektuak partaidetza zabaltzeko nahi du, ordezkariak instituzionalaren ohiko proffiletatik harago: astialdiaren eguneroko jardunarekin lotura zuzena duten begiraleen presentzia sustatuko da, oinarritzko esperientziatik abiatuta ikaskuntzak,

zailtasunak eta benetako beharrak txertatzeko, prozesua administrazioarekin Astialdi esparruak, gaur egun, araudi-aldaketen eta egitura erronken testuinguruari aurre egin behar dio, eta erakundeekiko benetako elkarriketa espazioak behar ditu. Prozesu hori, bereziki, honako hauetan kokatzen da:

- **Haur eta Nerabeen 2/2024 Legeak** babes ingurune eta babes-politiken beharra indartzen du, baita gizarte- eta hezkuntza-testuinguruetan eta astialdian ere.
- **Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategia**, astialdia eremu estrategiko gisa kokatzen duena eta lan-ildo partekatuak bideratzen dituena.
- **Gazteriaren 2/2022 Legea**, Euskadin astia hezigarria eta gazte-politika aitortzeko erreferentzia esparru gisa.

Testuinguru horretan, proiektuak honako hauek lortzen lagundu nahi du:

- Astialdi Hezigarriko jarduerak arautzen dituen arau esparru eta dekretuaren eguneraketa.
- Babesguneak sendotzea eta haur eta nerabeentzako ingurune seguruak bermatzeko neurriak hartzea.
- Elkarre-ereduaren iraunkortasuna: erakundeen aintzatespena, finantzaketa, belaunaldi-erreleboa eta karga burokratikoa.
- Sektoreko eragileen arteko koordinazioa indartzea eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailarekin elkarriketa egonkorra izatea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi Hezigarriaren ehunaren eragin politikorako gaitasuna indartzea, EGKren bidez, artikulazio- eta elkarriketa-espazio gisa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Euskadiko astialdi eragileen arteko topagune eta koordinaziorako gun bat sortzea.
- Sektorearen premia eta erronka partekatuak identifikatzea eta horiek araudia eta politika publikoa hobetzeko proposamen zehatz bihurtzea.

- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailarekin elkarrizketa zuzena erraztea, astialdi esparruko elkarrizketa eta aitorten instituzionala indartuz.
- Astialdi Hezigarria gazteen partaidetzarako eta gizarte-kohesiorako eta haurren eta nerabeen eskubideen bermerako eremu estrategiko gisa ikusaraztea.

Garapena

Garapenaren muina Astialdi Foroaren lan-dinamikaren barruan kokatzen da, eta elkarrizketa-gune instituzional bat sustatzen du sektorearen egungo eztabaida eta beharretan aurrera egiteko, batez ere arau-aldaketari eta babesguneei lotutako neurriak bultzatzeari dagokienez. EGK-k bideratzaile eta bitartekari gisa jardungo du, sektorearen aniztasuna eta proposamenen sistematizazioa bermatuz.

1. Fasea: Prestaketa

Fase honetan, aldeztu aurretik lan egingo da Astialdi Foroko eragileekin, helburu hauek lortzeko:

- Sektoreko lehentasuneko gaiak mugatzea (dekretua, babesguneak, ereduaren iraunkortasuna, burokrazia, aintzatespena, etab.).
- Ekarpinak eta esperientziak jasotzea, lurralde-ikuspegi pluraletik eta praktikan oinarrituta (jardunean dauden begiraleak barne).
- Aldarrikapen eta proposamen errealisten agenda komuna eraikitzea, indarrean dagoen arau-esparruarekin eta esparru estrategikoarekin lerrokatuta.
- Elkarrizketa-formatua eta topaketa instituzionalaren helburu zehatzak definitzea.

Emitza beharrak, erronkak eta proposamenak biltzen dituen laburpen dokumentu bat izango da, sailburuarekin bilera egiteko oinarri gisa balioko duena. Bilera instituzionalaren aurretik, EGK-k dokumentu bat bidaliko dio Sailari, lanerako proposamen argi eta zehatzekin, aldeztu aurretik aztertu eta landutako edukiarekin bat egin dezan.

2. Fasea: Topaketa

Fase nagusian, Astialdi Foroko eragileen eta Nerea Melgosa sailburuaren arteko topaketa bat sustatuko da, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren esparruan.

Topaketaren ezaugarriak:

- Astialdi Foroaren inguruan egituratutako astialdi talde eta sareen ordezkarien parte-hartzea.
- Aldez aurretik eraikitako eta Sailarekin partekatutako proposamen eta eskari egituratuak helaraztea.
- Prozesu arauemailearen egoerari, parte hartzeko mekanismoei eta egutegia/ibilbide-orria entzuteko eta trukatzeko espazioa.
- Konpromisoetarako orientazioa: jarraipena egiteko eta jarraipena egiteko bide posibleak identifikatzea.

3. Fasea: itzulera, sistematizazioa eta jarraitutasuna

EGK-k hau egingo du:

- Sektorera itzultzea: erakunde eta pertsona parte-hartzaileei itzultzea, ondorioak, akordioak eta hurrengo urratsak sistematizatuz.
- Sailari itzultzea (berria): EGK-k itzulketa-dokumentu bat egin eta bidaliko dio Sailari, prozesuaren ondorioekin (adostasun-puntuak, lehenetsitako proposamenak, gai irekiak eta ibilbide-orriko iradokizunak), jarraipen instituzionala errazteko.

Halaber, jarraipen mekanismo bat ezartzeko aukera aurreikusten da (bideragarritasun instituzionalaren arabera), prozesua ez dadin bilera bakar batera mugatu, baizik eta sektorearen, EGKren eta administrazioaren arteko elkarriketa egonkorragoa sendotzen lagun dezan.

4. Fasea: Ondorengo erakundearen itzulketa (Udazkeneko Eskolaren esparruan)

Nerea Melgosa sailburuarekin topaketa egin eta hilabete batzuetara, EGK-k prozesuan parte hartzen duten talde eta pertsonen zuzendutako itzulketa-saio bat bultzatuko du, elkarriketa-zikloa ixteko eta administrazioetik itzulera argia bermatzeko.

Udazkeneko Eskolaren esparruan egingo da itzulketa hori. Asteburuko prestakuntza- eta bizikidetza-topaketa da, batez ere Astialdi Foroari lotutako taldeentzat. Aterpetxe batean egiten da, eta prestakuntza-espazioak profesional espezializatuekin eta hainbat erakunderen arteko dinamika parte-hartzaileekin konbinatzen ditu, loturak sendotzeko, esperientziak partekatzeko eta hezkuntza-aisialdiari buruzko ezagutzak zabaltzeko.

Testuinguru horretan, topaketa bat antolatuko da, eta, bertan, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak, sailburuaren parte-hartzearekin, honako hauek partekatuko ditu taldeekin:

- Sektoreak egindako proposamenetan oinarrituta egindako aurrerapenak.
- Arau-lanaren eta babesguneei lotutako neurrien egoera.
- Sailak hautemandako irizpideak, aukerak eta mugak.
- Ibilbide-orri orientagarri bat, hurrengo urratsekin (mugarriak eta egutegia, ahal den neurrian).

EGK-k bideratzaile gisa jardungo du, topaketaren edukiak bilduz eta sistematizatuz, sektorerantz itzultzeko eta, hala badagokio, jarraipen-mekanismo bat adosteko. Saio honen bidez, elkarriketarengan konfiantza, gardentasuna eta jarraitutasuna indartu nahi dira, prozesua bilera bakar batera mugatzea saihestuz eta EGK astialdi eragileen eta erakundeen arteko elkarriketa-organo gisa sendotuz.

Ebaluazioa

- Astialdi Foroko eragileekin prestaketa-saioak egingo da, eta sektoreko lehentasunezko gaiak adostuko dira.
- Sektoreko beharrak, erronkak eta proposamenak jaso eta sistematizatuko dira, lurralde-ikuspegia eta begiraleen ekarpenak barne.
- Sailburuarekin topaketarako proposamen-agenda komun bat eraikiko da, kolektiboa, errealista eta marko legal/estrategikoekin lerrotua.
- Laburpen-dokumentu bat prestatu eta Sailari bidaliko zaio, topaketaren aurretik, lanerako proposamen argi eta zehatzekin.
- Astialdi Foroko ordezkarien eta Sailburuaren arteko topaketa egingo da, eta sektorearen proposamenak modu egituratuan aurkeztuko dira.
- Topaketaren ondorioak, akordioak eta hurrengo urratsak bildu eta itzuliko dira sektoreari (itzulera-saioa edo komunikazio bateratua).
- Sailari itzulketa-dokumentua egin eta bidaliko zaio, adostasunak, lehenetsitako proposamenak, gai irekiak eta jarraipen-iradokizunak jasota.
- Jarraipen-mekanismo bat aktibatzeke aukera landuko da (lan-taldea, hurrengo bilera, edo egutegi/ibilbide-orri bat).
- Udazkeneko Eskolaren esparruan itzulketa-saio bat antolatuko da, Sailaren parte-hartzearekin, egindako aurrerapenak eta hurrengo pausoak partekatzeke.

4.6 Erlijioen arteko bizikidetza

Proiektu hau Bakea eta Bizikidetza lan-arloarekin batera koordinatuko da. Horrenbestez, plangintzaren 6.5 Erlijioen arteko bizikidetza atalean dago azalduta.

4.7 Campamento en el Parlamento

Proiektu hau Hezkuntza lan-arloarekin batera koordinatuko da. Horrenbestez, plangintzaren 5.2.1 Campamento en el Parlamento atalean dago azalduta.

4.8 Harremanak eragileekin

Aurten, astialdiko eragileekin mantendu diren harremanei dagokienez, Astialdi Hezigarria lan-komunitatearen eta Astialdiko Koordinazio Mahaia bilerak egin dira. 2024ko ildoan lan egiten jarraitu da, Koordinazio Mahaia jarraibideen eta estrategiaren ardatz eragileen (ikerketa, web orria...) arabera.

Astialdiko lan-arloa astialdiko eragile guztiekin (astialdi foroak, astialdi sare ezberdinak, taldeak, eskolak, begiraleak, familiak...) harremanak izatean oinarritzen bada ere, aurten, astialdiko lan-esparrutik, sare hori zabaltzeko nahi izan da, egiten den lana beren helburuagatik astialdikoak ez diren baina astialdiko programak dituzten erakundeetara hurbilduz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi Foroen sarea indartzea eta zabaltzea, astialdi hezigarriko programak dituzten erakundeekin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiaren ondorio positiboak eragile desberdinetara hedatzea.
- EGK-k Astialdi hezigarriaren inguruan duen diskurtsoa hedatzea eta zabaltzea, hala nola, aniztasun funtzionala, ijitoak, etab. bezalako kolektiboekin.

Garapena

EKINTZAK:

- Astialdiko Koordinazio Mahaian eta Astialdi Hezigarria lantaldean parte hartzea.

- Erakunde, astialdi talde, zein beste eragileekin (talde, fundazio, entitate...) batera koordinazio lanak burutzea.
- Astialdiaren esparruan lan egiten duten aniztasun funtzionalarekin lotutako entitateekin harremana sustatzea.

Ebaluazioa

- Astialdi Hezigarriko bilerak egin dira eta Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiaren ardatzak lantaldean koordinatuko egingo dira.
- Astialdiko Koordinazio Mahaian EGK-ko Astialdiko diskurtsoa helarazi den eta proposamenak egin diren ebaluazio irizpidetzat joko da.
- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin egindako bilerak.
- Egindako kontaktu berri kopurua.
- Astialdiaren esparruan lan egiten duten aniztasun funtzionalarekin lotutako entitateekin harremana sustatu izana.

4.9 Gazteriaren elkargunea

2025ean, EGK-k Gasteizko Udalak sustatutako **Gazteriaren elkargunearen** topaketetan parte-hartzea sendotzea eta gazteen beharrak erdigunean jartzen jarraitzea adostutako helburua zen. Horretarako, EGK-k **Gazteriaren elkargunean** jarraitzeko konpromisoa hartu zuen, gazteek planteatutako erronkak eta proposamenak jorratzeko, gazteriaren interesak modu eraginkorrean ordezkatzuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gasteizko Udalarekin harremana estutzea, gazteen behar, interes eta iritziak erdigunean jarritz, eta **Gazteriaren elkargunearen** bidez haien ahotsa udalaren erabakiguneetan modu eraginkorrean ordezkatzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gasteizko Udalarekin lankidetza sendotzea, gazteekin lotutako gaietan eragin handiagoa izateko.
- Gazteen parte-hartzea sustatzea **Gazteriaren elkargunearen** bileretan, haien beharrak eta interesak modu aktiboan mahai gainean jartzeko.

- Proposamen zehatzak egitea **Gazteriaren elkargunean**, gazteen eskariak kontuan hartu daitezen udalaren plangintzan.
- Topaketetan presentzia etengabea bermatzea, gazteen ikuspegia ordezkatzuz.

Garapena

EGK-k 2026an Gazteriaren elkargunean duen parte-hartzea sendotzeko konpromisoa hartzen du, gazteen beharrak, interesak eta iritziak Gasteizko Udalaren erabakiguneetan eraginkortasunez ordezkatzeko. Horretarako, topaketetan parte hartze aktiboa izango du, gazteekin lotutako gaien inguruan proposamenak aurkezteko eta udalarekin lankidetza zuzena garatzeko.

Ebaluazioa

- Gazteriaren elkarguneko bileren kopurua eta EGKren parte-hartzea neurtuko da.
- Udalarekin izandako harremanen maiztasuna eta lankidetza-maila balioetsi egingo da.

5. PARTAIDETZA



Partaidetza lan-arloa 2013ko uztaillean sortu zen, EGK-ko Batzar Orokorrean onartutako “Indartzen” plan estrategikoan agindutakoa beteta.

EGK gazteriaren eta administrazio publikoen arteko zubia izanik, partaidetza lan-arloaren helburua politika publikoen lanketan gazteen partaidetza sustatzea da. Horretarako, planteatutako ekimenen bitartez partaidetza modu praktikoa sustatzeaz gain, gazteriaren partaidetzaren errealitatea jaso, horren gaineko hausnarketa egin eta hobekuntzak proposatuko dira.

Arlo honek lan teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu; beraz, elkarte zein entitate ezberdinekin batera lana bulegotik kanpo egingo da askotan.

5.1 2024-2030 Plan Estrategikoa eta Urteko Ekintza Plana

2024. urtean Partaidetza arlotik, Presidentziarekin batera, 2024-2030 Plan Estrategikoa egituratu egin zen, partaidetzarekiko sortutako erronken aurrean ekimen ezberdinak planteatzeko. Plan honi jarraiki, urte bakoitzean, Urteko Ekintza Plana egituratu egin behar da.

2026ko Urteko Ekintza Planaren ardatz nagusiak EGK-ko 40. Urteurrena baliatuz, EGK-ko eta EGK-ko elkarteen eragin politikorako gaitasuna eta partaidetza kuotak sendotzean izango ditu bere oinarri nagusiak. Halaber, Urteko Ekintza Planari esker Partaidetza lan-arloaren sustraiak EGKren lan arlo guztietan transbertsalizatuko dira. Modu honetan, partaidetza areagotzeko helburuarekin, EGK-ko proiektu guztiek partaidetza sustatzeko estrategia indibidualizatuak izango dituzte, lan arloen eta Urteko Ekintza Planaren arteko koherentzia eta bateragarritasuna mantenduz.

Halaber, gazteen eta gazte elkarteen partaidetza sustatzen jarraituko da, 2024. urtean egindako diagnostikoa oinarria izanik. Gazte elkarteen zaintza eta bidelaguntza izango da lan-arloaren eginkizun nagusietako bat, hein handi batean, Formakuntza Planaren sakontze prozesuari esker.

Modu honetan, **Urteko Ekintza Planak** hainbat lan ildo izango ditu gazteen eta gazte elkarteen partaidetza sustatzeko, hala nola, Euskadiko mankomunitate eta zonalde ezberdinetara EGK eramatea, gaurkotasunari lotutako gaiak jorratzea eta gaurkotasuneko gertakariei erantzuna emateko gaitasuna sustatzea, Eragin Politikorako plana sendotzea, belaunaldiarteko justiziaren inguruko posizionamendu bat lantzea, etabar.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ren **Plan Estrategikoa eta Urteko Ekintza Plana** garatzea, partaidetza areagotzeko lan ildoak egituratuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKn partaidetza are gehiago sustatzeko marko berriak egonkortzea eta modu transbertsalean lantzea lan-arlo guztietan.
- Gazteen eta gazte elkarteen partaidetza sustatzea, elkarteei bidelaguntza eskainiz eta haien aldeko eragina eginez.
- EGK-ko 40. Urteurrenaren baitan EGK-ren eta EGK-ko gazte elkarteen papera balioan jartzea eta haien eragin politikoa sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- 2024-2030 Plan Estrategikoari jarraipena emango zaio Presidentziarekin batera.
- 2024-2030 Plan Estrategikoarekin doan 2026ko Urteko Ekintza Plana burutuko da, partaidetza areagotzeko beharraren ikuspegia transbertsalki txertatuz.
- EGK-k dituen lantalde ezberdinen koordinazioa burutuko da, lantalde bakoitzean parte hartzea handitzeko gakoak ezarriz.
- EGK-ko elkarteek dituzten beharrei entzun eta hauekin batera konponbideak bilatu eta erantzungo dira.
- Elkarteei arlo desberdinetan ahalduztzen lagunduko zaie, formakuntzarako espazio egokiak eskainiz eta EGK-k elkarteekin egiten duen lanean sakonduz.
- Gazteen partaidetza areagotzeko lan ildo berriak irekiko dira, hala nola, Eragin Politikorako Plana indartzea, landa eremuko gazteen egoera aztertzea, mankomunitateekin bilerak egitea, gaurkotasunari lotutako ekitaldiak antolatzea, jarraipen handiagoko formakuntza ekintzak planteatzea, instituzioen eta gazteen arteko bilerak ahalbidetzea, komunikabideekin harremana sendotzea, etabar.

Ebaluazioa

- 2024-2030 Plan Estrategikoari jarraipena emango zaio.
- Urteko Ekintza Plana berrikusi, eguneratu eta ebaluatu egingo da, 2024-2030 Plan Estrategikoak definitzen dituen ardatzei men eginez.
- EGK-ko 40. Urteurrena baliatuko da EGK-k eta gazte elkarteek duten indarra ikusarazteko eta balioan jartzeko.
- Lantaldeen koordinazio bilerak egingo dira teknikari ezberdinekin, partaidetza areagotzeko estrategiak lantalde eta proiektu guztietara hedatuz metodologia berritzaile eta tresna dinamikoen bitartez.
- EGK-ko gazte elkarteekin harremana sendotuko da, elkarte ezberdinekin harreman berriak egingo dira eta EGK-ko partaidetza kuotak areagotuko dira.

5.2 EGK-ko Formakuntza Plana

EGK 60 gazte-elkartek osatutako erakundea da, elkarten tipologia oso heterogeneoa da, eta eremu oso desberdinetan (astialdia, nazioartekotzea, zientzia eta teknologia, politika, sindikalismoa, boluntariora...) eta oso modu desberdinetan (borondatezko kudeaketa, profesionalizazioa, etab.) lan egiten duten erakundeak ditu.

EGK osatzen duten erakundeen sarea indartzeak erakunde horiek zaintzea esan nahi du laguntza prozesuak abiaraziz, haien ekintzak behar bezala garatzeko. Laguntza horiek gauzatze aldera, EGK-k formakuntza-plan bat ezarriko du, elkarteen jakintza teoriko-praktikoa areagotzeko eta prestakuntza-saioetan landutakoa inplementatzen jakiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazte-elkarteei laguntzeko sistema bat egituratzea, formakuntza-plan baten bidez.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren barneko partaidetzan sakontzeko tresna berriak sortu eta martxan jartzea, EGK-ko elkarteekin batera.
- EGKn partaidetza are gehiago sustatzeko marko berrien eratzea.
- Konpromezu eta jarraipen handiagoko formakuntza ekintzak abiaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

- EGK osatzen duten elkarteen beharretan oinarritutako Formakuntza Programa ezartzea.
- Elkarteei formakuntza espezializatua eta indibidualizatua ematea, Ahalbidetuz Programaren bitartez.
- Euskadiko gazte elkarteetako boluntarioentzat egindako ibilbide feministako prestakuntza martxan jartzea, ikuspegi intersektionalarekin, elkarteetan aldaketa feministak bultzatzeko tresnak eskaintzen dituen.
- Astialdiko Udazkeneko Eskolaren lehenengo edizioa bultzatzea, hau da, Ikasteko, hausnartzeko eta astialdiko beste begirale batzuekin konektatzeko formakuntza espazio intentsiboa.
- Gazte Formatzaileen Poltsaren bitartez, gazteak formatzaile gisa ahalduntzea, gai hauetan espezializatuta: boluntariotza, kudeaketa, ekonomia, euskera, etabar.

Ebaluazioa

- Formakuntza ekintza ezberdinak garatuko dira elkarteei zuzenduta.
- Formakuntza EGK-ko elkarteei zuzendutako laguntza baten moduan egituratu eta komunikatuko da.

- 2025 eta 2026 urteetan egituratutako Formakuntza Planari jarraipena emango zaio kalitatea emanez.
- Bi formakuntza ildo berri aurrera eramango dira, jarraipen eta intentsitate ezberdinekin.
- Gazteak Formakuntza Planaren erdigunean egongo da, programaren hartzaile eta dinamizatzaile gisa.
- Formakuntza Planaren kontrastea egingo da agente eskudunekin.

5.3 EGK-ko 40. urteurrena

2026an EGK-k 40 urte betetzen ditu. 1986an jaiotako kontseiluak hainbat gazte elkarteek sustatuta eta lege parlamentario baten eskutik lau hamarkada osatu ditu gazteen ahotsa izaten Euskadiko instituzio publikoen aurrean eta gazte elkartei sare sendo bat eskainiz. Urteurren hau ezinbesteko mugarria da EGKrentzat, izan ere, egungo egoerak ematen duen ziurgabetasunaren aurrean, urte hauetan zehar EGK tinko mantendu da bere eginkizunetan.

Urtemuga honen bitartez Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak duen indarra ikusarazi nahi da, hala, gazteriak eta gazte elkarten Euskadin egiten duten ekarpenak balioan jarriko dira, haien eragin politikoa sustatuko da eta EGK-ko ibilbide historikoari men egingo zaio (Bakerako hezkuntza, Astialdi Foroa, etabar).

40. urteurrenaren programazioak lau mugarri handi izango ditu: EHU-ko Udako Ikastaroa bakegintzaren inguruan, Kanpaldia Legebiltzarrean proiektua berreskuratuko da, gazteen partaidetzaren eta etorkizuneko belaunaldien inguruko jardunaldi bat burutuko da eta ospatzeko ekitaldi potente bat antolatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren 40. urteurrena ospatzea, Euskadiko administrazioekin gazteen ordezkari eta solaskide baliodun den organoa balioan jarritz, baita huraosatzen duten gazte-elkarteak ere.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren eta gazte-elkarten eragin politikorako gaitasuna handitzea.
- EGK-k 40 urteko historian zehar izan duen ibilbide historikoari balioa ematea, bakearen aldeko hezkuntzaren, hezkuntza-aisialdiaren eta gazteen parte-hartzearen aldeko lanean enfasi berezia jarritz.

- Gazte-elkarteak eta kontseiluari lotutako eragileen sarea inplikatzeari 40. urteurrenaren ospakizunetan.

Garapena

EKINTZAK:

- EHU-ko Udako Ikastaroen Fundazioarekin batera “Kontzientzia Eragozpenetik Etikasira: 40. Urte bakearen alde lanean” ikastaroa antolatuko da.
- Kanpaldia Legebiltzarrean berreskuratzeko da bi adar ezberdinetan. Alde batetik, Astialdi Foroko taldean Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikorako Sailburuarekin topaketa bat egingo da. Bestetik, gazte elkarteekin oro har Eusko Legebiltzarrera joango da EGK eta gazte politikariek hausnarketa eta eztabaidarako foro bat antolatuko da.
- “Etorkizuneko Belaunaldiak: Gazteak, Partaidetza eta Eraldaketa” jardunaldia antolatuko da, demokrazia aurreratuko eta gobernantza publikoko eredu bat bultzatzeko asmoz, gazteak erabakiak hartzeko prozesuen erdigunean jarriko dituen, belaunaldien arteko justizia bermatuz, parte hartzeko mekanismo eraginkor, inklusibo eta egonkorren bidez, eta benetan eragiteko gaitasuna izango duena.
- Urrian, 40. Urteurrena ospatzeko ekitaldi instituzional bat gauzatuko da. 40. urteurreneko ekitaldirik garrantzitsuenak izango dira, modu instituzionalean landuko den ekitaldia da. Administrazioak, gazte elkarteak, entitate laguntzaileak eta Euskadiko gazteak oro har gonbidatuak izango dira, EGK-ko eraginaren inguruko dokumental bat jarriko da eta jai giroa emango duten zenbait une berezi emango dira.
- Sare sozialetan komunikazio ekintza puntualak emango dira, EGK-ko irudi digitala aldatzea nabarmenena izango da. Gazteriaren Nazioarteko Egunerako bideo ezberdin bat prestatuko da.
- Instituzioen artean goi mailako bilerak egingo dira, hala nola, Lehendakariarekin, Aldundietako Ahalduen Nagusiekin, hiriburuetako goi agintariek, etabar.

Ebaluazioa

- EGKren eta gazte-elkarteen rola aitortza instituzionala eta soziala landuko da.
- Gazteen eta gazte-elkarteen inplikazio maila areagotuko da ekimen ezberdinekin.
- EGKren ibilbide historikoaren transmisioa emango da, EGK balioan jarri.
- Gazteen partaidetzari eta eragin politikoari buruzko gogoeta eta eztabaida sustatuko dira.
- EGK-ko irudiaren sendotzea emango da eta etorkizuneko proiektioa jorratuko da.

5.4 Kristalezkoak: Gazteak eta Ongizate Emozionala

2024. urtean gazteen ongizate emozionalaren gaia modu sakonean lantzea izan zen EGK-k planteatu zuen jomuga nagusia. Proiektu horren bitartez, jardunaldi eta ekimen ezberdinak burutu ziren, haien bitartez, EGK-k gazteen ongizate emozionalarekiko posizionamendu bat egituratu zuen, gizarteari zein administrazioei aldaketa ezberdinak proposatuz.

2025an Kristalezkoak kanpaina ezagutzera eman zen Euskadiko espazio ezberdinetara zabalduz (sare sozialak, publizitatea, presentzia garraio publikoetan) eta administrazio ezberdinekin aurkezpen bilera ezberdinak eginez. Modu honetan, 2025. urtean Eusko Jurlaritzako Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin gazteen ongizate emozionala zaintzeko hamar konpromezu sinatu zituen EGK-k. 2026ean konpromezu hauen betetze mailari jarraipena egingo zaio bai eta Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin batera lan egingo da konpromezuak aurrera eramate aldera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren aldetik Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin sinatutako gazteen ongizate emozionalaren aldeko konpromezuen betetze maila bermatzeko jarraipena egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Kristalezkoak proiektuaren eragin politikorako gaitasuna sendotzea.
- Adostutako konpromezu bakoitzaren jarraipena egitea eta konpromezu horiek aurrera eramateko ekintzak proposatzea.
- Gizartearen eta administrazio ezberdinen aurrean gazteen ongizate emozionalaren inguruko diskurtsoa zabaltzea eta inpaktua handitzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Aldizkako jarraipen-bilerak egitea Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin, hamar konpromezuen aurrerapena aztertzeko.
- Sinatutako konpromezuen betetze-mailari buruzko jarraipen-txosten kualitatiboak egitea.
- EGK-k eta administrazioak elkarlanean jarduteko espazioak garatzea, konpromezuetatik eratorritako neurriak eta ekintzak zehazteko..

Ebaluazioa

- Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak eta EGK-k hartutako hamar konpromezuak erabat bete daitezen lortzea.
- EGKren eta Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzaren arteko elkarriketa eta lankidetzaren ematea gazteen ongizate emozionalari dagokionez.
- Sinatutako konpromezuen eta administrazioak garatutako ekintzen arteko koherentzia lortzea.

5.5 Gazteriaren Foro Transpirenaikoa

Pirinioetako Lan Elkartea osatzen duten (PLE) lurraldeetako gobernuek, tartean Eusko Jaurlaritzak, **Gazteriaren Foro Transpirenaikoa** jarri izan dute martxan azken urteetan. Lurralde horietako gazteek elkar ezagutu eta bizi dituzten problematika eta bizibaldintzen inguruan hausnartzeko espazio bat sortzea da asmoa.

Foro horretan EAE, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Akitania Berria eta Okzitaniako gazteek hartuko dute parte. Beraien bizibaldintzak hobetu, gazteen problematiken inguruan hausnartu eta gazteriaren orokorreko gai eta problematiken aurrean proposamenak egiten saiatuko dira, beste askoren artean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Pirinioetako Lan elkarteak (PLE) osatzen duten lurraldeetako gazteek hausnarketarako espazio bat eraikitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lurralde desberdinetako gazteek problematikak elkarbanatzea.
- Lurralde ezberdinetako gazteen arteko saretzea sustatzea.
- Aspektu komunen inguruan hausnartu eta berauek indartzea (euskara, mugikortasuna...).
- Errealitate pirenaikoa gizarteratzea gazteen ikuspegitik.

Garapena

EKINTZAK:

- EAEko lantaldea eratzeke deialdia kudeatu da eta taldea eratu da.
- Formakuntza saio ezberdinetan parte hartu da.
- Topaketan parte hartu da eta topaketaren inguruko kudeaketak burutu dira.

Ebaluazioa

- Taldea eratzeko deialdia egingo da eta eskaera kopurua kontuan hartuko da hautaketa prozesua eratzeko orduan.
- EGK-k PLE-ko gazteria taldean duen papera indartuko da, erreferente lanak eginez Eusko Jaurlaritzarekin batera.
- Foroak proposamenak eta ekimenak aurrera eramateko izan duen baliagarritasuna ere baloratu beharko da.

5.6 EGKatalogoa: Material, Gela eta Aholkularitza Zerbitzua

Aholkularitza zerbitzua eta **Material eta Gelen Lagapen zerbitzua** arlo berdinean batu egin dira: EGKatalogoa. EGKatalogoa elkarteei zuzendutako baliabideak modu bateratu batean aurkezteko bidea da, gazte elkartean bidelaguntzeko asmoz beti ere.

Aholkularitza zerbitzua gazteen, gazte elkarteen eta gizarteko estratu ezberdinen zalantzak argitzean datza. Zerbitzu honen bitartez, gazte elkarte zein norbanakoekin harremanak sendotzeko mekanismo gisa baliatu nahi da Aholkularitza.

Bestetik, Material eta gelen mailegua EGK-k gazteei eta gazteen elkarteei eskaintzen dien zerbitzuetako bat da. Eskaerak jasotakoan, ezarritako prozedura estandarizatua jarraitu behar da materiala zein gela lagatzeko. Partaidetza teknikariaren lana da maileguen jarraipena egitea eta material eta gelen erabilera sustatzea, eta berori baliatu EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen, gazte elkarteen eta erakundeen beharrak erantzuteko eta harremanak estutzeko oinarritzko baliabide praktiko gisa aholkularitza eta material zein gelen lagapena eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen, gazte elkarteen eta erakundeen kezkak, kexak, zalantzak... erantzutea aholkularitza zerbitzuaren bitartez.
- EGK eta elkarteen arteko harremana indartu eta sakontzea aurkeztutako bi baliabideen bitartez.
- EGKren material eta bulegoen erabilera gazte elkarteen artean gero eta gehiago sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Aholkularitza zerbitzua kudeatzea modu estandarizatu batean.
- Aholkularitza zerbitzua digitalizatua mantenduko da.
- Material eta gelen lagapena kudeatzea.
- Aholkularitza zerbitzua zein material eta gelen lagapenaren erabilera sustatzea gazte elkarteetan artean.

Ebaluazioa

- Ebaluazio irizpide nagusiak egindako aholkularitza zerbitzuen kopurua eta berauen edukia izango dira. EGKren parte ez diren elkarte eta eragileekin egindako kontaktua eta harreman horien bilakaera ere baloratuko da.
- Utzitako material eta baliabideen egoeraren gaineko jarraipena egitea. Bestetik, urtean zehar egindako lagapen kopurua aurreko urteetakoekin alderatzea.

5.7 EGK Parte Hartze Espazioetan

EGKren eginkizun nagusia euskal gazteriaren, elkarteetan eta erakundeetan artean zubi-lana egitea da. Zeregin hori modu eraginkorrean egin ahal izateko, beharrezkoa da euskal gazteriari dagozkion gaiak lantzen diren guztietan presente egotea, bai EGKren presentzia eskatzen duten erakundeek beraiek eskatuta, bai gazteen premiei eta kezkei erantzuteko.

Horrela, EGK-k eztabaidarako eta erabakitzeko hainbat espaziotan ordezkatzuta egon behar du. Horretarako, funtsezkoa da EGK-k espazio horietan eztabaidatzen diren gaiei buruzko diskurtso sendoa izatea. Partaidetza-eremuaren zeregin nagusietako bat da EGK ordezkatzeko gazteen parte-hartzea tartean sartzen den guztietan, eta talde teknikoarekin koordinatuta lan egitea, EGK-k parte hartzen duen foroetan landuko diren diskurtsoak elikatzeke.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k partaidetza espazio ezberdinetan parte hartzea gazteen ahotsa helarazteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lantaldetan egituratutako diskurtsoak helaraztea partaidetza espazioetan.
- EGK ordezteko administrazio ezberdinen artean.

- Partaidetzaren inguruko foro ezberdinetan presentzia edukitzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Boluntariotza Agentziek antolatzen dituzten boluntariotza azoka ezberdinetan parte hartzea.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren baitan dauden lantalde ezberdinetan presentzia egonkortzea eta lantalde iraunkorraren parte izatea.
- OGP Euskadiren Foro Erregularrean parte hartzea, bigarren konpromezu taldearen lidergotza eramatea eta laugarren konpromezu taldean parte hartzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Herriarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluan parte hartzea.
- Arestian aipatu ez diren foro eta parte-hartze gune guztietan elkar eragitea, baldin eta horietan EGK-k gonbidapena jasotzen badu edo parte hartzea gazteen premiatzat jotzen bada.

Ebaluazioa

- EGK-k parte hartu du gonbidatua izan den parte hartze gune guztietan.
- Gazteen eta gazte elkarten ahotsa helarazi da aipatutako espazioetan.
- EGK-k gune ezberdinetan parte hartzea proposatu du, gazteek eta elkarteek helarazitako beharren arabera.

6. BAKEA ETA BIZIKIDETZA



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren Bake eta Bizikidetza arloak bake positiboan eta bizikidetzan oinarritutako gizarte baten eraikuntza sustatzea du helburu. Bere lana bi ildotan antolatzen da: batetik, finkatutako eta inpaktu handiko proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egingo da (Etikasi,

adibidez), hobetzen jarraitzeko; bestetik, proiektu berriak txertatuko dira, gazteen egungo beharretara eta kezketara egokituta. Bakearen esparruan, motibazio politikoko indarkeria eta bake-prozesuak landuko dira bereziki, alderdi historikoei eta horien egungo ondorioei buruz hausnartzeko eta gizarte baketsuago baterantz aurrera egiteko. Bizikidetzari dagokionez, hainbat gai jorratuko dira, hala nola kolektibo jakin batzuekiko diskriminazioa, talde kalteberen ahalduntzea, kulturartekotasuna eta bizikidetzak gizarte anitzean dituen erronkak eta aukerak. Arlo honen helburua da gazteek gai horiei buruzko esperientziak eta gogoetak partekatzeak espazioak sortzea, eta baita ulermena, elkarrekiko errespetua eta hainbat errealitatearen arteko elkarriketak sustatzea ere. Gainera, gazteek gizartearen iraganari, orainari eta etorkizunari buruz duten ikuspegi kolektiboa aberasteko egiten dituzten eskaerak entzutera eta kontuan hartzera bideratuta dago.

Beraz, gazteek hainbat problematikei buruz dituzten hausnarketak eta eskaerak jasotzeko diseinatuko dira proiektuak.

Hurrengo lerroetan zehazten dira EGK-k 2025ean Bakearen eta Bizikidetzaren arlotik egingo diren proiektuak. Hain zuzen ere, hauek dira proiektuak: **Etikasi Polonia eta Ipar Irlanda, AcercaTé, Nork-nori-zer: Diskriminazioa alokairuan, EHU Uda Ikastaroa, Erlijioen arteko elkartrukea, Nazioarteko Egunak, Eragileekin harremanak.**

EGKren lan-arlo bakoitzean egindako proiektuez gain, beste ekintza batzuk ere egin behar dira Gazteriaren Kontseiluaren eguneroko funtzionamendua bermatzeko. Ekintza horien artean daude bilerak, aholkularitza, bulegoaren kudeaketa, txostenak, proiektuak gauzatzeko hainbat kudeaketa, memoriak eta datorren urterako plangintza.

6.1 Etikasi Polonia eta Ipar Irlanda

Bidaia hezigarrien bidez gazteek etika, bakea, bizikidetzak eta giza eskubideei buruz hausnartzeko proiektua da **Etikasi**. Giza eskubideen urraketa sufritu duten Europako lurraldeetara bidaia hezigarriak eginez etikari eta giza eskubideei buruzko hausnarketa eta ikasketa sustatzea da programaren helburua. Bidaietan zehar, gazteek leku horietako errealitate historikoak eta egungoak bertatik bertara ezagutzeko aukera dute, eta gizarte askok dituzten erronken ulermen sakonagoa garatu.

2026ko proiektuak bi modalitate izango ditu:

Lehen taldea: Polonia. Ikastetxeei eskaintzen zaie modalitate hau, Batxilergoko 1. mailako ikasleentzat. Krakoviara (Polonia) joango da ikasgela ekainean.

Bigarren taldea: Ipar Irlanda eta Euskadi. 18 eta 30 urte bitarteko Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako Zikloetako eta Unibertsitateko graduako 20 gaztek izaten dute parte hartzeko aukera. Bi bidaia egiten dira: Ipar Irlandara eta Euskadi.

Bidaietara joan aurretik ikasleek formakuntza jasotzen dute, eta itzuli ostean ondorioak hausnartzeko saioa egiten da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Etikasi proiektua aurrera eramatea eta hurrengo urteetara begira Etikasi aurrera eramateko beste aukerak ebaluatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Proiektuaren diseinua egokitzea.
- Bidaia egiteko lekuak aukeratu eta bertan egiteko programak garatzea.
- Gazteen parte hartzea sustatzea.
- Formakuntza eta ebaluazioa antolatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Zabalpena eta hautaketa prozesua: Proiektuaren difusioa prestatuko da. Horretarako, deialdia hasi aurretik, Etikasi proiektuko datak zehaztu eta kartelen diseinuak egingo dira diseinatzaile gazte batekin. Ondoren, izen-emate galdetegiak prestatu eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako eskola ugarirekin harremana hasiko da, baita EAEn dauden lau unibertsitateetako irakasle eta arduradunekin ere. Honen helburua izen-emateak irekitzerako orduan informazioa ahalik eta gazte gehienengana heltzea izanik.

Behin izen ematea irekita, difusioa ahalik eta bide gehienetan egingo da: emailak, buletinak, sare sozialak, ikastetxeetan eta unibertsitatean programa aurkeztu etab. Hainbat komunikazio hedabideekin kontaktuan jartzea ere izango dugu helburu.

Aurten ere hautaketa-prozesua egingo da eta, horretarako, epaimahaia osatuko da. Epaimahaikideen artean gehiegizko lana saihesteko, aurreko urtean bezala, bi epaimahai talde egongo dira, bat Poloniako ikastetxeentzako eta bestea Ipar Irlanda-Euskadiko gazteentzako. Poloniako hautaketa-prozesurako ikastetxeek aukeztutako bideoak

baloratuko dira, aurretik zehaztutako zenbait irizpideren arabera. Halaber, egindako bideoaren prozesuaren hausnarketa idatzia egin beharko dute (nola sortu zen ideia, nolakoa izan den sormen-prozesua, zein zailtasun izan dituzten, nola konpondu dituzten, nola landu duten giza eskubideen gaia...). Irlandako gazteen hautaketa-prozesurako, aldiz, idazlanak ebaluatuko dira eta baita banakako elkarrizketak ere.

- Formakuntzak: Aurreko urteetan bezala, Baketik erakundeak erraztuko du Etikasi programaren alderdi hezitzailea. Beraz, entitatearekin batera hainbat bilera egingo dira alderdi pedagogikoa eta bidaien bisitak koordinatze aldera. Horrekin bidaietara joan aurretik dagoeneko hausnarketak egiten hastea da helburua, bidaiak ahalik eta gehien aprobetxatzeko aukera izan dezaten. Aurten, bi formakuntza desberdin eskainiko dira taldearen arabera.
- Bidaiak: Bi taldeekin bidaiak egingo dira. Bidaia bakoitza egin baino lehen, urte hasieratik kudeatuko dira bisitak, hostelen erreserbak, hegaldiak eta logistikoki beharrezko kudeaketa guztiak egingo dira. Halaber, aurreko esperientzietatik ateratako hobekuntza proposamenak kontuan hartuko dira eta aurtengo beharretara egokitu da proiektua bere osotasunean.

POLONIA

Ekainak 13tik 16ra egingo da Krakoviara bidaia.

IPAR IRLANDA

Uztailaren 2tik 7ra Ipar Irlandako bidaia egingo da.

EUSKADI

Urriaren 2tik 4ra gazte taldea Gipuzkoan (Pasaia eta Errenteria) elkartuko da gertuko historia gertuagotik ezagutzeko.

Ebaluazioa

- Proiektuan inguruko interesa gazteen artean handitzea.
- Biolentzia eta bere ondorioen ezagutza handitzea partaideen artean.
- Partaideen balorazioak.
- Indarkeria egoerak identifikatzea eta horietan gaitasun enpatikoak izatea.

6.2 Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean

Proiektu hau Etxebizitza lan-arloarekin batera koordinatuko da. Horrenbestez, plangintzaren 1.2 Nork-nori-zer, diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean atalean dago azalduta.

6.3 AcercaTé

Ramadanarekin batera aurreiritziak, zurrumurruak eta jarrera islamofoboak gora egiten dute. Baina gizarte bezala ba al dakigu benetan Ramadana zer den? Ez jateaz eta ez edateaz harago al doa? Zer suposatzen du hilabete sakratu honek musulmanentzat?

Euskadiko biztanle askorentzat, Ramadana urruneko gai bat da, ezezaguna, eta oso erreferentzia gutxi dituzte. Ramadanaren datak aprobetxatuz, Iftarra (baraua hausten duen otordua) antolatuko da, gazte musulman eta ez musulmanak elkar ezagutzeko, hitz egiteko eta hausnartzeko. Ezjakintasunaren oztopoak haustea eta topaketarako, elkarrizketarako eta hausnarketarako gune bat sortzea du helburu. Afari-merienda gastronomiko soziala izan daiteke: plater bakoitzaren azpian paper batean idatzitako Ramadanarekin eta islamofobiarekin zerikusia duten hausnarketarako galderak egongo dira. Ondoren, denon artean komentatuko dira eta, era horretan, Euskadin presente dagoen Islamofobiaren inguruko gogoetak jasoko ditugu.

Aurreko urtean batez ere gazte musulmanak hurbildu ziren. Horrenbestez, aurtengo erronka nagusia gazte ez musulmanak ere etortzea izango litzateke.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Iftar bateratua antolatu eta Ramadanaren inguruko aurreiritziei aurre egin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Kulturen arteko ulermena eta elkarrekiko errespetua sustatzea Euskadiko gazte musulmanen eta ez-musulmanen artean.
- Euskadiko komunitate musulmanen bizikidetza inklusiboa eta gizarteratzea sustatzea.
- Ramadanaren esanahiari eta tradizioei buruz sentsibilizatzea, parte hartzaileek ospakizun horri buruz ikas dezaten.
- Ramadanaren inguruko aurreiritziak eta gaizki-ulertuak gainditu.

Garapena

EKINTZAK:

- Kontaktua: Lehenik eta behin, erakunde edo talde musulmanekin harremanetan jarriko da EGK, haiekin batera ekitaldia antolatu ahal izateko. Lankidetzaz hori funtsezkoa izango da beharrezkoak diren alderdi guztiak koordinatzeko eta jardueraren arrakasta bermatzeko.
- Logistika: Talde musulmanekin harremanetan jarri ondoren, ekitaldiaren funtsezko alderdiak definituko dira, hala nola data, lekua, jardueren ikuspegia eta xehetasun praktikoak, esaterako Iftarrera eramango den bazkaria. Plangintza zehatzeko prozesu horrek elementu guztiak lerrokatuta egotea eta parte-hartzaileei esperientzia aberasgarria eskaini ahal izatea bermatuko du.
- Zabalpena: Ekimena zabaltzeko kanpaina bat egingo da, aurreko urteko datuak kontuan hartuta, bereziki gazte ez-musulmanak ere egon daitezkeen, topaketa aberasgarriagoa izan dadin. Zabalpenerako kartel bat diseinatuko da eta sare sozialetan zein EGK-ko boletinean argitaratuko da.
- Ebaluazioa: Mezu elektroniko bat bidaliko zaie bertaratzen diren pertsonari gogobetetze inkesta bat bete dezaten: gehien gustatu zaiena izan idazteko, gutxien gustatu zaiena, gehiago landu nahiko zuteena, dituzten proposamenak... hurrengo urteari begira hobetzen jarraitzeko.

Ebaluazioa

- Gazteen artean proiektuarekiko interesa handitzea, batez ere musulmanak ez direnen artean.
- Ramadanari eta haren tradizioei buruzko ezagutza areagotzea parte-hartzaileen artean.
- Islamofobiari eta Euskadin duen presentziari buruzko hausnarketa sustatzea.
- Parte-hartzaileek erlijio musulmanarekin eta ramadanarekin lotutako aurreiritziak identifikatzeko eta horiei heltzeko gaitasuna garatzea.
- Ekitaldiak gazte musulmanen eta ez-musulmanen arteko kulturen arteko ulermenean eta bizikidetzan eragin positiboa izatea.

6.4 EHU Uda Ikastaroa

EGKren 40. urteurreneko jardueren barruan, eta kontuan hartuta Bake eta Bizikidetzaren arloa izan dela lau hamarkada hauetan bilakaera handiena izan duenetako bat, UEUren udako ikastaro bat antolatzea erabaki da, arlo horretan oinarrituta.

Ikastaroaren helburu nagusia azken 40 urteetan bakearen eta bizikidetzaren kontzeptua nola aldatu den hausnartzea da, lortutako lorpenak, gaitutako erronkak eta testuinguru desberdinetan inplementatu diren estrategiak aztertuz. Gainera, etorkizuneko perspektibak aztertu nahi dira, oraindik dauden erronkak eta egungo gizartean bakearen eta bizikidetzaren kultura indartzeko aukerak identifikatuz.

Hitzaldi, eztabaida eta esperientzia partekatuen bidez, ikastaroak atzera begiratzeko, iraganetik ikasteko eta ideia berritzaileak proiektatzeko espazio bat eskainiko du, ingurune bidezkoagoa, inklusiboagoa eta baketsuagoa eraikitzen jarraitzeko. Ekimen hau EGK-k gaur egun erakundeko arlo aktibo eta estrategikoenetako bat sendotzeko eta indartzeko egiten duen apustuaren barruan kokatzen da. UEUko ikastaroak murgiltze sakona eskainiko du bakearekin eta giza eskubideekin zerikusia duten funtsezko gaietan, parte-hartzaileak sentibilizatzeko eta prestatzeko gizarte garaikideei eragiten dieten problematikak ulertzeko eta horiei heltzeko. Hitzaldiak, testigantzak eta jarduerak zein dinamikak uztartuko dituen metodologia dinamiko baten bidez, ikastaroak funtsezko alderdiak izango ditu ardatz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

UEUren ikastaro bat antolatzea, bakeak eta bizikidetzak azken 40 urteetan izan duten bilakaera aztertzeko eta belaunaldien arteko topaketarako eta elkarrizketarako gune bat sortzeko, lortutako lorpenei eta arlo horretan gaur egun eta etorkizunean izango diren erronkei buruzko hausnarketa sustatuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gogoeta egitea bakearen eta bizikidetzaren kontzeptuaren bilakaera historikoari buruz Euskadin eta beste testuinguru garrantzitsu batzuetan.
- Azken lau hamarkadetan bakea eta bizikidetzaren sustatzeko lorpenak eta erronkak aztertzea.

- Etorkizuneko ikuspegiak aztertzea, egungo gizartean bakearen eta bizikidetzaren kultura indartzeko aukerak identifikatuz.
- Diru-laguntzen eta finantzaketa-iturri berrien bilaketa sustatzea, EGKren egonkortasun ekonomikoa sendotzeko.
- Kontu-emate eta gastu-kontrol prozesuak hobetzea, erakundearen ekonomia arduratsu eta gardena izan dadin.

Policy Program

Policy Program EGKren lan politikoaren filosofia eta ildo estrategikoak jasotzen dituen dokumentu nagusia da. Dokumentu honek erakundeak gazteriaren eskubideak defendatzeko duen ikuspegia argitzen du, eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko oinarriak ezartzen ditu.

EGK-k urteetan zehar hainbat posizionamendu politiko garatu ditu, baina dokumentu hauek maiz sakabanatuta egon dira, eta ez dute beti koherentzia orokor bat izan. Policy Program-en helburua, hain zuzen, EGKren jarrera politikoa bateratzea eta sendotzea da, gazteen eskubideen aldeko lan guztia marko argi batean kokatzeko.

Dokumentu honek hurrengo urteetan EGKk izango duen norabidea zehaztuko du, eta erakundearen eguneroko eragin politikorako lanaren oinarri izango da. Horregatik, presidentziak ardura zuzena izango du programaren diseinua eta garapena bideratzeko, eta prozesua modu parte-hartzailean gauzatzea bermatuko du. Horretarako, EGKren entitateei eta gazteei ahotsa emango zaie, beraien ekarpenak jasoz.

Policy Program-en bidez, honako hauek lortu nahi dira:

- EGKren posizio politikoak zehaztu eta indartu: Erakundeak defendatzen dituen printzipioak argi eta finko izatea, gazteriaren aldeko lana sendoa eta bateratua izan dadin.
- Gazteriaren eskubideak eta etorkizuneko belaunaldien babesa ardatz izango duen programa bat garatzea: EGKk duen misioa eta ikuspegia jaso, eta politika publikoetan duen papera sendotzea.
- Eragin politikorako estrategia bateratu bat finkatzea: Dokumentu hau izango da EGKk erakunde eta instituzioen aurrean izango duen diskurtsoaren oinarri nagusia, koherentzia handiagoz jardun ahal izateko.

Dokumentua 2026ean amaitzea eta batzar orokorrean onartzea. aurreikusten da, baina ez da dokumentu itxi bat izango. Aldiz, eguneratzen joango den dokumentu bizi bat izango da, testuinguru sozial eta politikoaren arabera moldatuko dena eta gazteen aldarrikapen berriak txertatzeko aukera emango duena.

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren posizio politiko guztiak dokumentu bakar batean bildu eta sendotzea.
- Gazteriaren eskubideak eta etorkizuneko belaunaldien babes ardatz izango duen programa bat garatzea.
- EGKren eragin politikoa koherentea eta eraginkorra izatea, erakundearen diskurtso bateratua eraikiz.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2026ean Policy Program dokumentua osatzea eta aurkeztea, prozesu parte-hartzaile baten bidez.
- Dokumentua etengabe eguneratzeko mekanismoak ezartzea, egungo testuinguru politiko eta sozialera egokitzeak.
- EGKren entitateen eta gazteen ekarpenak txertatzeko espazioak sortzea, eztabaida eta proposamenen bidez.

Policy Program-ekin, EGKren lan politikoaren ildo nagusiak finkatu eta gazteriaren eskubideen defentsarako estrategia bateratu bat sortuko dugu, erakundearen eragina sendotuz.

8.1.2 Talde Teknikoaren Koordinazioa

Lantalde Teknikoa EGK-ko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta arlo bateko proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezen eta koherentzia bermatu dadin.

Talde Teknikoko Koordinazioa funtsezkoa da EGKren eguneroko funtzionamendua eta barne-kohesioa bermatzeko. Arlo bakoitzeko langile teknikoak koordinatzeaz gain, lanaren jarraipena egitea eta prozesuak hobetzea du helburu. Koordinazio honek bermatzen du EGKren ekintza guztiak estrategikoki bideratuta eta modu eraginkorrean garatzen direla.

Presidentziaz lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bilatuko dira eta zubi-lana egingo da Batzorde Iraunkorraren eta Lantalde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako erabakiak bigarrenagora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko.

Lantalde Teknikoa hilabetean behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilerak hauen deialdia eta dinamizazioaren ardura presidentearenak dira. Ostiralero Skype bidezko bilera teknikoak egiten dira. Horretaz gain, presidentzia teknikari bakoitzaren beharren arabera bilerak koordinatu egiten ditu, normalean aste osoan zehar teknikari guztiekin koordinatzeko helburua dauka. Bilerak bi modalitate desberdinetan burutzen dira, aurrez aurrekoak eta Online bilerak.

Funtzio nagusiak hauek dira:

- Talde teknikoaren eguneroko lana koordinatzea: Lan-dinamika eta prozedurak definitzea, lehentasunak markatzea eta beharrezko jarraipena egitea.
- Barne-antolaketa mekanismoak ezartzea: Eraginkortasuna handitzeko lan-prozesuak optimizatzea eta arlo ezberdinen arteko koordinazioa sustatzea.
- Batzorde Iraunkorarekin eta arloekin elkarlana indartzea: Erabaki estrategikoak modu parte-hartzailean hartzeko espazioak sortzea.
- Talde teknikoaren gaitasuna indartzea: Formazio eta tresna berriak garatzea, langileen gaitasunak hobetzeko eta EGKren lanaren kalitatea ziurtatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren eguneroko funtzionamendu eraginkorra bermatzea, barneko koordinazio sendo baten bidez.
- Talde teknikoaren lana optimizatzea eta eraginkortasuna handitzea.
- Arlo eta lan-esparru ezberdinen arteko kohesioa sustatzea, erakundearen estrategia orokorarekin bat eginez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Barne-antolaketa mekanismoak indartzea, EGKren lan-prozesuak optimizatzeko.
- Talde teknikoaren koordinazio-eremuak garatzea, bilera periodikoak eta lan-dinamika berriak ezarritik.

- Lan-planen eta ekintza-planen jarraipena egitea, urteko helburu estrategikoak betetzen direla bermatzeko.
- Talde teknikoaren prestakuntza eta garapena bultzatzea, gaitasun tekniko eta estrategikoak sendotzeko.

8.1.3 Barne Antolaketa Mekanismoak

2025ean, EGKren barne-antolaketa hobetzeko mekanismo berria ezarri zen eta 2026an mekanismo horiei jarraipena emango zaie, hauek kontseiluaren eguneroko funtzionamendua optimizatzeko eta koordinazioa eraginkorragoa bermatzeko sortu ziren. Urte hauetan egindako diagnostikoaren ondorioz, eguneroko antolakuntzan egitura argiago bat behar dela identifikatu zen, batez ere arlo tekniko, estrategiko eta politikoen arteko lotura indartzeko.

Horretarako, Parte-hartzea, Idazkaritzak eta Presidentzia Koordinazioa batzordeari jarraipena emango zaio, EGKren barne-funtzionamendua egonkortu eta hobetzeko espazio bezala. Batzorde hau erabakiak modu koordinatuan hartzeko, informazio-fluxua hobetzeko eta egunero sortzen diren erronei aurre egiteko mekanismo bat izango da.

Funtzio nagusiak hauek dira:

- Barne-komunikazioa hobetzea: Talde teknikoaren, Batzorde Iraunkorraren eta Presidentziaren arteko informazio-fluxua arintzea eta dokumentuen trukea egituratzea.
- Koordinazio-espazio finkoak ezartzea: Astean behin edo bi astean behin bilera espezifikoak egitea, eguneroko funtzionamendua eta lehentasunak adosteko.
- Erabakiak hartzeko prozesuak erraztea: Erabaki estrategikoak eta operatiboak modu efiziente eta parte-hartzailean hartzeko metodologia garatzea.
- Antolaketa-plan bat ezartzea: Urteko egutegia, barneko protokoloak eta erantzukizun-banaketa garatzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren eguneroko funtzionamendua argiagoa eta eraginkorragoa izatea, koordinazio mekanismo sendo baten bidez.
- Barne-egitura sendotzea, talde teknikoaren eta zuzendaritzaren arteko lan-dinamika hobetuz.

- Erabakiak hartzeko eta informazioa partekatzeko prozesuak hobetzea, gardentasuna eta parte-hartzea indartzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

Parte-hartzea, Idazkaritzak eta Presidentzia Koordinazioa batzordea eratzekeo prozesua gauzatzea eta bere dinamika finkatzea.

- Koordinazio-bilera erregularrak antolatzea, gutxienez astean behin edo bi astean behin.
- Barne-komunikaziorako tresna berriak ezartzea, dokumentuen kudeaketa eta informazioaren partekatzea errazteko.
- Barne-protokoloak eta antolakuntza-plana eguneratzea, 2026eko erronkei egokituta.

8.2 Harreman Instituzionalak

EGKren jardueraren ardatz nagusietako bat da erakundeekin harremanak izatea, gazteriaren eskubideak eta beharrak defendatzeko. Erakundeen aurrean gazteen ahotsa izateko eta eragina izateko lan egiten dugu, erakunde publikoekin, alderdi politikoekin eta gizarte-eragileekin elkarlanean. 2026ean, harreman estrategiko eta egonkor bat bermatu nahi dugu, erakunde bakoitzarekin helburu argiak zehaztuz eta EGKren posizio politikoa indartuz.

Horretarako, hainbat eragileekin harremanak kudeatuko dira, haien artean finantzaketa-iturria diren erakundeak, erakunde publikoak, alderdi politikoak eta gizarte-eragileak. Harreman horiek modu planifikatuan egingo dira, aliantzak sendotzeko eta eragina areagotzeko estrategia baten barruan.

Garapena

Finantzaketa erakunde publikoak:

EGKren jarduera finantzatzeko hainbat erakunderekin lan egiten da, horien artean Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, udal handiak eta bestelako finantzaketa-iturria eskaintzen duten erakunde publiko eta pribatuak. Helburua da EGKren iraunkortasun ekonomikoa bermatzea eta finantzaketa-esparru egonkor bat ezartzea.

Finantzaketa erakundeekin harremanak mantentzeko honako lanak egingo dira:

- Diru-laguntzen jarraipena eta justifikazioa egitea.

- Hitzarmen eta akordio ekonomikoak negoziatzea eta kudeatzea.
- Finantzaketa-iturri berriak bilatzea, EGKren autonomia ekonomikoa handitzeko.
- Aurrekontuaren eta finantzaketaren jarraipen hurbila egitea, Batzorde Ekonomikoarekin koordinatuta.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren finantza-egonkortasuna bermatzea, erakunde finantzatzaileekin harreman aktiboa izanik.
- Diru-laguntzak eta hitzarmenak negoziatzea eta berritzea, finantzaketa-iturri berriak bilatuz.
- Baliabide ekonomikoen erabilera efizientea ziurtatzea, erakunde finantzatzaileei kontuak emateko mekanismoak hobetuz.

Erakunde publikoak

EGKk harreman zuzena du erakunde publikoekin, gazteriaren eskubideak defendatzeko eta politika publikoetan eragina izateko. Erakunde publiko nagusien artean honako hauek daude:

- Eusko Jaurlaritza (Gazteria, Enplegua, Hezkuntza, Etxebizitza, Berdintasuna, etab.).
 - Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak partekatzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantzaketa-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik dator.
- Legebiltzarra
 - Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGK-k agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean Gazteria Batzordearekin bilduaz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Horrez gain, EGK-k zenbait proiektu eta horien ondorioak plazaratzeko agerraldi eskaerak egin ohi ditu.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gainean erantzuna emateko, bertaratu eta hala egingo da. 2014ean Gazteen Lantaldea abian jarri zenez, parte-hartze aktibo bat izateko ahalegina egin da, baina taldearen aurrera pausoen arabera izango da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Agerraldiez haratago aurtengo helburua izango da gazteek eta entitateek Legebiltzarra ezagutzeko ekintzak burutzea.

- Foru Aldundiak (gazteria-politikekin lotutako departamentuak).
 - Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere gazteen egoera, behar eta interesen inguruan lan egiten da. Horretarako, 2025an lurralde historiko bakoitzeko foru administrazioarekin harremana mantentzeko ahalegina egingo da.
- Batzar Nagusiak
 - Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Lurralde Historiko bakoitzeko gazteria politiken inguruko hausnarketa eta gazteen egoeraren inguruko datu eta informazioa Batzar Nagusietan plazaratzeko ahalegina egiten da agerraldien bitartez.

Horretaz gain, hitzarmena sinatu aurretik, aurrekontu garaian, EGK-k bere jardunaren berri ematen saiatzen da alderdi ezberdinekin bilduz.
- Udalak (gazteria-zerbitzuak eta politika lokalak)
 - Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak instituzioekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Oro har, EGKren ekarpena gazteria politikei egiten zaie Gazte Planen edo bestelako proiektuen bitartez. Horietarako, eratuta dauden estrukturetan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, harremana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea... presidentziaren bitartez burutzen da.

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren eta erakunde publikoen arteko elkarlana sendotzea, gazte-politikak indartzeko.
- Gazteen beharrak eta eskaerak erakunde publikoen politika eta estrategietan txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eusko Jaurlaritzarekin gazte-politiken inguruko bilerak mantentzea eta akordioak lortzea.
- Foru Aldundiekin eta udalekin gazteentzako politikak koordinatzea.
- EGKren parte-hartzea bermatzea Euskal Autonomia Erkidegoko politika publikoetan.

Alderdi politikoak

Alderdi politikoek gazteriaren etorkizunean duten eragina kontuan hartuta, haiekin harreman egonkor eta ordenatu bat izatea beharrezkoa da. EGKk alderdiekin harreman zuzenak mantenduko ditu, haien politika-proposamenetan gazteek dituzten interesak eta eskubideak txertatu ahal izateko.

Lana honako ardatzetan oinarrituko da:

- Alderdi politiko guztiekin bilerak egitea, gazte-politikak nola lantzen dituzten jakiteko.
- Gazteen eskaera nagusiak alderdien lan-agendetan sartzea.
- Hauteskunde-garaian gazte-politikak mahai gainean jartzea, proposamenak kontrastatzeko.
- EGKren ikuspegia eta proposamenak alderdiei helaraztea, gazteak erdigunean jartzeko.

HELBURU OROKORRAK:

- Alderdi politiko guztiekin harreman egonkor bat bermatzea.
- Gazte-politikak alderdien agenda politikoetan txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Alderdi politikoekin bilera erregularrak egitea (gutxienez urtean behin alderdi bakoitzarekin).
- 2025eko hauteskunde-prozesuetan gazteen eskubideak agenda politikoetan txertatzeko ekimenak egitea.
- EGKren proposamenak alderdien lan-agendetan sartzea.

Entitateak eta agente Sozialak

EGK gazte-erakunde eta gizarte-eragile ezberdinekin harremanetan dago, gazteen eskubideak defendatzeko eta gizarte-eraldaketan laguntzeko. Harreman hauek elkarlanerako eta sare-lanerako bidea eskaintzen dute, gazteen ahalduntzea sustatzeko eta aldarrikapen kolektiboak lantzeko.

Urtean zehar Gazteria politiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraitua edukitzen da

Presidentziatik, hala nola: Espainiako Gazte Kontseilua, Kataluniako Gazteriaren Kontseilu Nazionala, Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Eskola Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua...

Horiez gain, EGK-k hainbat elkarterekin (EGKren barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, EHU/UPV, Deustuko Unibertsitatea, Kooperatiben Kontseilua, Bai Euskarari...

- Entitate eta gizarte-eragileekin harremanak honako lan-lerroetan oinarrituko dira:
- Gazte-erakundeekin lankidetzaz sendotzea, EGKren parte-hartzea indartuz.
- Mugimendu sozial eta sindikatuarekin harremanak lantzea, gazteriaren interesak babesteko.
- Gizarte-eragileekin elkarlana sustatzea, gazte-politikak hobeto garatzeko.

- Aliantzak eraikitzea eta ekintza bateratuak egitea.

HELBURU OROKORRAK:

- Gazte-erakunde eta gizarte-eragileen arteko lankidetzaren sustatzea.
- Gazteen eskubideak eta interesak maila sozialean indartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte-erakundeekin elkarlanerako espazioak indartzea (sare-lan iraunkorra sortzea).
- Mugimendu sozial eta sindikatuarekin harremanak lantzea, gazteen eskubideen aldeko borrokan parte hartzeko.
- Aliantza estrategiko berriak ezartzea, gazte-politiken eragina zabaltzeko.
- Sare-lana sustatzea, gazteriaren egoeraren inguruko diagnosi partekatuak egiteko.
- Beste sektore batzuetako entitateekin lankidetzaren sustatzea (hezkuntza, enpresa-mundua, gizarte-ekintza, kultura...) gazteentzako aukera berriak sortzeko.

8.3 Eragin Politikoa

Eragin politikorako estrategia EGKren lanaren ardatz nagusietako bat da, eta azken urteotan gazteriaren eskubideen defentsa eraginkorragoa izan dadin, estrategiaren beharrezkotasuna nabarmendu dugu. Presidientziak ardura izango du estrategia hau egituratu eta garatzeko, EGKren posizionamendu politikoa argia, koherentea eta eraginkorra izan dadin.

Azken urteotan ikusi dugu EGKk egiten duen eragin politikoa askotan egoeren eta premien arabera izan dela, baina ez duela beti ikuspegi estrategiko oso bat izan. Hau da, erantzun azkarrak eman ditugu hainbat gairen aurrean, baina askotan ez da estrategia bat egon atzean, eta horrek ahuldu egin dezake gure mezua edo eragin instituzionala. Gainera, politika publikoen eraginkortasuna hobetzeko, beharrezkoa da EGKren posizioak eta aldarrikapenak modu ordenatuan eta jarraituan lantzea.

Horregatik, beharrezkoa ikusi genuen 2025ean eragin politikorako estrategia bat eraikitzea, helburu argiak definituko dituen, diskurtso bateratua sortuko duena eta eragin hori modu koordinatuan bideratuko duena. Beraz, 2026an estrategia onartu eta jarraipena emango diogu.

Estrategia hau ez da soilik egoera puntualei erantzuteko tresna izango, baizik eta EGKren lan politikoa gidatuko duen marko bat izango da, gazteriaren eskubideen aldeko aldarrikapenak modu iraunkorrean defendatzeko.

Estrategia honen bidez, presidentziak ziurtatuko du erakundearen posizionamenduak eta aldarrikapenak ez direla isolatuak izango, baizik eta ikuspegi estrategiko orokor batean kokatuko direla, instituzioen aurrean koherentziaz eta etengabeko jarraipenarekin defendatzeko. Horretarako, ezinbestekoa izango da honako hauek lantzea:

- EGKren posizionamendu politikoen egituraketa eta koherentzia: EGKk duen diskurtsoa argi eta bateratua izatea, gazteriaren interesak modu sendoan defendatzeko.
- Eragin politikorako tresnak garatzea: Adibidez, txostenak, proposamenak eta bestelako materialak prestatzea, erakundeen eta gizartearen aurrean gure aldarrikapenak indartzeko.
- Harreman instituzionalen sendotzea: EGKren harremanetan sakontzea Eusko Jaurlaritzarekin, Legebiltzarrarekin, foru-aldundiekin, udalekin, entitate eta agenteekin gazteen politikak modu koordinatuan lantzeko.
- Jarraipena eta ebaluazioa: Eragin politikorako ekintzen emaitzak neurtzea eta estrategia etengabe egokitzea, eraginkortasuna bermatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren eragin politikoa modu ordenatu eta planifikatuan garatzea.
- Gazteen ahotsa instituzioetan eta gizartean entzunaraztea, eragiteko gaitasuna handituz.
- Gazteriaren eskubideak eta interesak modu bateratuan defendatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2026eko eragin politikorako estrategiari hasiera ematea
- Erakunde publikoekin eta gizarte-eragileekin harreman estrategikoak indartzea.

- Eragin politikorako tresna eraginkorrak garatzea, hala nola dokumentuak, kanpainak eta posizionamendu publikoak.
- Aldarrikapen politikoen jarraipena egiteko mekanismoak sortzea.

Garapena

2026an, EGK-k hainbat erronka nagusi identifikatu ditu eragin politikoa handitzeko:

1. Gazte-politikak erdigunean jartzea
 - Gazteen bizi-baldintzak hobetzeko, politika publikoetan eragina izatea.
 - Emantzipazioa, lana, etxebizitza, hezkuntza eta berdintasuna bezalako gaiak lehenestea.
2. Gazteen parte-hartzea handitzea
 - Gazteen ahotsa jasotzeko mekanismoak sortzea eta parte-hartze prozesuak bultzatzea.
 - Gazteak aktiboki inplikatzeko espazio gehiago sortzea.
3. Erakunde publikoekin harremanak sendotzea
 - Eusko Jaurlaritzarekin, foru aldundiekin eta udalekin bilerak egituratzea.
 - Politikak gazteekin batera diseinatzeko espazioak bultzatzea.
4. Aldarrikapenak eta proposamenak lantzea
 - Gazteen beharrak identifikatu eta horien gaineko proposamen politikoak egitea.
 - Hitzarmen eta proposamen konkrituak negoziatzea erakundeekin.
5. Gazteen eskubideen defentsa
 - Gazteen eskubideak urratzen diren kasuetan erantzun publikoa ematea.
 - Eztabaida publikoetan EGKren ahotsa presente egotea.

8.4 EGKren 40. Urteurrena

2026an EGK-k 40 urte betetzen ditu. 1986an jaioetako kontseiluak hainbat gazte elkarteek sustatuta eta lege parlamentario baten eskutik lau hamarkada osatu ditu gazteen ahotsa izaten Euskadiko instituzio publikoen aurrean eta gazte elkartei sare sendo bat eskainiz. Urteurren hau ezinbesteko mugarria da EGKrentzat, izan ere, egungo egoerak ematen duen ziurgabetasunaren aurrean, urte hauetan zehar EGK tinko mantendu da bere eginkizunetan.

Urtemuga honen bitartez Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak duen indarra ikusarazi nahi da, hala, gazteriak eta gazte elkarteak Euskadin egiten duten ekarpenak balioan jarriko dira, haien eragin

politikoa sustatuko da eta EGK-ko ibilbide historikoari men egingo zaio (Bakerako hezkuntza, Astialdi Foroa, etabar).

40. urteurrenaren programazioak lau mugarri handi izango ditu: EHU-ko Udako Ikastaroa bakegintzaren inguruan, Kanpaldia Legebiltzarrean proiektua berreskuratuko da, gazteen partaidetzaren eta etorkizuneko belaunaldien inguruko jardunaldi bat burutuko da eta ospatzeko ekitaldi potente bat antolatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren 40. urteurrena ospatzea, Euskadiko administrazioekin gazteen ordezkari eta solaskide baliodun den organoa balioan jarritz, baita huraosatzen duten gazte-elkarteak ere.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren eta gazte-elkarteen eragin politikorako gaitasuna handitzea.
- EGK-k 40 urteko historian zehar izan duen ibilbide historikoari balioa ematea, bakearen aldeko hezkuntzaren, hezkuntza-aisialdiaren eta gazteen parte-hartzearen aldeko lanean enfasi berezia jarritz.
- Gazte-elkarteak eta kontseiluari lotutako eragileen sarea inplikatzeko 40. urteurrenaren ospakizunetan.

Garapena

EKINTZAK:

- EHU-ko Udako Ikastaroen Fundazioarekin batera “Kontzientzia Eragozpenetik Etikasira: 40. Urte bakearen alde lanean” ikastaroa antolatuko da.
- Kanpaldia Legebiltzarrean berreskuratuko da bi adar ezberdinetan. Alde batetik, Astialdi Foroko taldean Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikorako Sailburuarekin topaketa bat egingo da. Bestetik, gazte elkarteekin oro har Eusko Legebiltzarrera joango da EGK eta gazte politikariekin hausnarketa eta eztabaidarako foro bat antolatuko da.
- “Etorkizuneko Belaunaldiak: Gazteak, Partaidetza eta Eraldaketa” jardunaldia antolatuko da, demokrazia aurreratuko eta gobernantza publikoko eredu bat bultzatzeko asmoz, gazteak erabakiak hartzeko prozesuen erdigunean jarriko dituen, belaunaldien arteko justizia bermatuz, parte hartzeko mekanismo eraginkor, inklusibo eta egonkorren bidez, eta benetan eragiteko gaitasuna izango duena.

- Urrian, 40. Urteurrena ospatzeko ekitaldi instituzional bat gauzatuko da. 40. urteurreneko ekitaldirik garrantzitsuena izango da, modu instituzionalean landuko den ekitaldia da. Administrazioak, gazte elkarteak, entitate laguntzailean eta Euskadiko gazteak oro har gonbidatuak izango dira, EGK-ko eraginaren inguruko dokumental bat jarriko da eta jai giroa emango duten zenbait une berezi emango dira.
- Sare sozialetan komunikazio ekintza puntualak emango dira, EGK-ko irudi digitala aldatzea nabarmenena izango da. Gazteriaren Nazioarteko Egunerako bideo ezberdin bat prestatuko da.
- Instituzioen artean goi mailako bilerak egingo dira, hala nola, Lehendakariarekin, Aldundietako Ahaldu Nagusiekin, hiriburu eta goi agintariekin, etabar.

Ebaluazioa

- EGKren eta gazte-elkarteen rola aitortza instituzionala eta soziala landuko da.
- Gazteen eta gazte-elkarteen inplikazio maila areagotuko da ekimen ezberdinekin.
- EGKren ibilbide historikoaren transmisioa emango da, EGK balioan jarritz.
- Gazteen partaidetza eta eragin politikoari buruzko gogoeta eta eztabaida sustatuko dira.
- EGK-ko irudiaren sendotzea emango da eta etorkizuneko proiektioa jorratuko da.

8.5 Kristalezkoak: Gazteak eta Ongizate Emozionala

2024. urtean gazteen ongizate emozionalaren gaia modu sakonean lantzea izan zen EGK-k planteatu zuen jomuga nagusia. Proiektu horren bitartez, jardunaldi eta ekimen ezberdinak burutu ziren, haien bitartez, EGK-k gazteen ongizate emozionalarekiko posizionamendu bat egituratu zuen, gizarteari zein administrazioei aldaketa ezberdinak proposatuz.

2025an Kristalezkoak kanpaina ezagutzera eman zen Euskadiko espazio ezberdinetara zabalduz (sare sozialak, publizitatea, presentzia garraio publikoetan) eta administrazio ezberdinekin aurkezpen bilera ezberdinak eginez. Modu honetan, 2025. urtean Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin gazteen ongizate emozionala zaintzeko hamar konpromezu sinatu zituen EGK-k. 2026ean konpromezu hauen betetze mailari jarraipena egingo zaio bai eta Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin batera lan egingo da konpromezuak aurrera eramate aldera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren aldetik Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin sinatutako gazteen ongizate emozionalaren aldeko konpromezuen betetze maila bermatzeko jarraipena egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Kristalezkoak proiektuaren eragin politikorako gaitasuna sendotzea.
- Adostutako konpromezu bakoitzaren jarraipena egitea eta konpromezu horiek aurrera eramateko ekintzak proposatzea.
- Gizartearen eta administrazio ezberdinen aurrean gazteen ongizate emozionalaren inguruko diskurtsoa zabaltzea eta inpaktua handitzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Aldizkako jarraipen-bilerak egitea Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin, hamar konpromezuen aurrerapena aztertzeko.
- Sinatutako konpromezuen betetze-mailari buruzko jarraipen-txosten kualitatiboak egitea.
- EGK-k eta administrazioak elkarlanean jarduteko espazioak garatzea, konpromezuetatik eratorritako neurriak eta ekintzak zehazteko.

Ebaluazioa

- Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak eta EGK-k hartutako hamar konpromezuak erabat bete daitezen lortzea.
- EGKren eta Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzaren arteko elkarriketa eta lankidetzaren ematea gazteen ongizate emozionalari dagokionez.
- Sinatutako konpromezuen eta administrazioak garatutako ekintzen arteko koherentzia lortzea.

9. KOMUNIKAZIOA



Komunikazio lan-arloaren helburua Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazte eta administrazioengana hurbiltzea da. Bide honetan jarraitzeko asmoarekin, 2026an ezagutza maila handitzea eta proiektu desberdinen bitartez EGKren irudia ezagutarazten jarraitzeko estrategiak izatea izango da jomuga.

9.1 Komunikazio Plana

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak antolatutako ekimen eta proiektuen berri emateko ezarritako kanala **Piztu! buletin digitala** da. Bi edo hiru astean behin bidaltzen zaie harpidetu diren gazte, gazte-elkarte, norbanako eta administrazioei. Gazteek gazteentzat egindakoa da **Piztu! Buletin digitala** eta honako edukiak biltzen dira:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jarduerak.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintza, proiektu edo egitasmoak agenda atalean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik egindako lana Euskadiko gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen artean ikusaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Euskadiko gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.

- Euskadiko gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikusarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60 gutxienez euskaraz).
- Euskadiko gazteriak dituen proposamenak eta eskaerak aditzera ematea.
- Euskadiko gazteek dituzten proposamenak espazioen kudeaketarako gomendioetan txertatzea eta gazteen diskurtsoa balorean ezartzea.
- EGK-ko sare sozialetan eta bere buletin digitalean jarraitzaile eta harpidedun kopurua igotzea.
- Ikusizko edukiei garrantzia ematea, eduki interesgarriak eta baliagarriak sortzea.

Piztu! buletin digitala

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana ikusaraztea.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteak ezagutzera ematea.
- EGK-ko kide diren elkarten jarduerak ezagutzera ematea.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak ezagutzera ematea.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintza, proiektu edo egitasmoak buletineko agenda atalean publikatzea.
- Harpidedun kopurua handitzea.
- Publikatutako buletin digital guztien erregistro bat eramatea.
- **Piztu! Buletin digitalaren** itxura berriztu.

Komunikabideekin Harremanak

- Euskadiko gazteen intereseak diren edo izan daitezkeen gaiak hedabideen eta, beraz, gizartearen agenda mediatikoan eta sozialean txertatzea. EGK-ren marka hedabideetan sendotzea, kontseilua ezagutzera emateko.
- EGKren jarduera eta iritziak hedabideetan azaltzea.
- Hedabideetatik jasotako proposamenak kudeatzea.
- Gazteen ikuspuntua txertatzea.
- Ekimen eta iritziak hedabideen bitartez gizarteratzea.
- Euskadiko telebista zein irratiko programa publikoren baten kolaborazioa lortzea.
- Gazteen inguruan publikatzen diren albisteen erregistro bat eramatea.

Sare Sozialak

- EGKtik kanpo dauden gazte, gazte-eragile, elkarte, hedabide eta administrazioekin konektatzea eta lotura, interakzio eta irismen hori handitzea eta lortzea.
- Pasaden urtearekin konparatuz jarraitzaile kopurua handitzea.
- EGKren azken albisteen berri ematea.
- Erabiltzaileekin elkarrizketa sortzea, aholkularitza zerbitzua eskainiz.
- EGKrentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioa biltzea eta jarraitzaileen artean partekatzea.
- EGK-k gai ezberdinen inguruan bere posizionamendua plazaratzea.
- Gazte elkarten azken albistek gertutik jarraitzea eta gazteria arloko bestelako eragileen azken orduaren berri izatea.
- Gazte eragileen albisteen eta agenda-deialdien berri ematea.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albistek ematea.
- Jarraitzaileen artean gertutasuna transmititzea.
- EGK marka bezala indartzea.
- Eduki interesgarria eta baliozkoa publikatzea.
- Euskadiko gazteei interesgarriak iruditu dakizkiekeen gaiekin *podcast* bat sortzea.
- EGK-ko 40. Urteurrenari bere garrantzia eman kontseiluko sare sozialetan.

Branding

- EGK-k bere barne eta kanpo komunikazioaren diseinua beti diseinu berdinarekin mantentzea, gazteek EGK-tik egiten den lana kontseiluarekin harremantzea.
- Memoretan, txostenetan eta bestelako dokumentuetan EGK-ko diseinua islatzea.
- Dokumentu grafikoetan tipografia eta paleta kolore berdina erabiltzea, barne dokumentuak koherentzia izan dezaten.
- Teknikariek egindako txosten eta publikazioetan EGK markaren Branding dokumentua errespetatzea.

Nazioarteko egunak

- Nazioarteko egunak aldarrikatzea eta *engagement* gehiago sortzea EGKren irudia ezagutzera ematez.
- Nazioarteko egunak aldarrikatzea.

- Gazteen egoera desberdinak ezagutzera ematea.
- Elkarriketa eta ikus-entzunezko edukiak egitea, jarraitzaileen artean arreta deitzea.
- EGKren posizionamendua aldarrikatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Urtean zehar egingo diren proiektu guztiei komunikazio plan bat atxikituko zaie, honekin batera edukien egutegi bat sortuko da, publikazio guztien erregistroa izateko eta kontseiluko komunikazioa bideragarriagoa izateko. Arlo bakoitzeko proiektu bakoitza bere **komunikazio plana** izango du. Proiektua publikatu baino lehen Komunikazio teknikariak eta arlo horretarako tekniaren artean erabaki beharko dute zein izango den proiektua hebedeetan eta EGK-ko sare sozialetan izango duen komunikazio zabalpena. Ala nola, proiektua modu grafiko batean diseinatu, sareetan publikatuko diren irudi, diseinu zein testuak sortu eta proiektuaren zabalpen nola egitearekin akordio batera heldu.

Proiektu guztiak difusio prozesu berdina izango dute:

- EGK-ko webgunean publikatu.
- EGK-ko sare sozialetan publikatu.
- EGK-ko elkarteei emaila bidali.
- **Piztu! buletin digitalean** publikatu.
- EGK-ko elkarteekin dagoen Whatsapp difusio taldean proiektua partekatu.
- Komunikazio teknikariak duen hedabideen erregistroari proiektua bidali.
- EGK-tik kanpo dauden elkarteei emaila bidali.
- Kartelgintzaren bitartez eta leku publiko horretan onartuta baldin badago, publizitatea egin.
- Proiektuko teknikariak eta Komunikazio teknikariak komenigarritzat jotzen badute, sare sozialetan publizitatea ordaindu.

KRONOGRAMA:

- Urte osoan zehar

Ebaluazioa

- Komunikazio teknikariak Piztu! buletin digitalak izan dituen emaitzen ebaluazioa egingo du urte amaieran, aldeztu aurretik finkatutako irizpideak jarraituz.

- Komunikazio teknikariak EGK-ko sare sozialak izan dituen harpidedun berrien erregistroa egingo du urte amaieran.
- Komunikazio teknikariak EGK-k hedabideetan izan duen presentziaren erregistroa egingo du urte amaieran.
- Komunikazio teknikariak EGK-tik egindako zabalpen desberdinen irismenaren erregistroa egingo du urte amaieran.
- Urte amaieran, plangintza honetan idatzita dagoen komunikazio plana bete den ebaluatuko da.

9.2 Webgunearen mantenua



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere eguneroko lana egiteko webgunea du, bere zerbitzari eta mantenuarekin. Horretarako, kanpo enpresa hautatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren webgunea ondo funtzionatzea eta kontseiluko komunikazio tresna nagusia izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK- antolatzen dituen ekitaldien berri eman.
- EGK-k aurrera ateratzen dituen proiektuen berri eman.

Garapena

EKINTZAK:

- EGK-ko webguneak duen zerbitzua emateko enpresekin harremanetan egon.



KRONOGRAMA:

- Urte osoan zehar
- Webgunean urtean zehar publikatutako gauzak eduki duten irismenaren ebaluazioa egitea Google Analytics zerbitzuaren bitartez. Baita, aurreko urteekin konparatuko da.

Ebaluazioa

- Webgunean urtean zehar publikatutako gauzak eduki duten irismenaren ebaluazioa egitea Google Analytics zerbitzuaren bitartez. Baita, aurreko urteekin konparatu.

9.3 Diseinatzaile Gazteen Lan Poltsa

Aurten, berriro ere Gazte diseinatzaileen laguntza jasoko da kontseiluko proiektu desberdinen emaketazioa, diseinuak eta komunikazioa aurrera eramateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k egunerokoan egiten duen lana zabaltzeko beharrezkoak dituen euskarrien diseinuak garatzea: kartelak, liburuxkak, txostenak, bideoak, etab.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko ezagutzera ematea ikus-entzunezkoen eta diseinuaren bitartez.
- EGKren marka indartzea.
- Euskadiko diseinatzaile gazteei lan aukera bat eskaintzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Diseinatzaile desberdinekin harremanetan ipini.
- Lantalde teknikoaren behar diren profil berriak zehaztu.
- 2027ari begira deialdi berria egin abenduan eta CV eta porfolioak jaso.
- Urtean zehar Lantalde teknikoaren beharrak kudeatu.

KRONOGRAMA:

- Urte osoan zehar

Ebaluazioa

- Teknikari bakoitzak diseinatzaile batekin lan egin ostean ebaluazioa egingo du. Urte amaieran, diseinatzaile bakoitzaren ebaluazio orokorra egingo da (baliteke behin baino gehiagotan lan egitea diseinatzaile berdinarekin) eta orduan erabakiko da 2026ko lan-poltsan nork jarraituko duen eta nork ez.
- Teknikari bakoitzak lan egin duen diseinatzaile guztien erregistro bat egin beharko du.

9.4 Lan Arloak

EGK-k jarduera ugari egiten ditu urtean zehar. Komunikazio lan-arloarekin zerikusi zuzena ez badute ere, teknikariaren ardura da hauen zabalpenean laguntzea eta gainerako lan-arloekin (Etxebizitza, Enplegua, Hezkuntza, Partaidetza, Astialdia, Bakea eta Bizikidetzak, Berdintasuna, Administrazioa eta Presidentzia) elkarlanean aritzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k, bakarrik edo beste administrazio edo elkarterekin batera, antolatzen dituen proiektuak gizarteratzea eta gazte erakundeen artean komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Aurrera eramandako proiektuek oihartzuna izatea hedabideetan.
- Hedabideek egindako erreportajeetan gure ahotsa kontuan izatea.
- Kanpaina espezifikoek bidez argitalpenarekin zerikusia duen oro zentralizatzea.
- Jorratutako gaiak eta gazteok hauei buruz dugun iritzia gizarteratzea.
- Prentsaurrekoak antolatzea.

Etxebizitza

- Nor-Nori-Zer
- Bilbao Ciudad Universitaria
- Emantzipa Laguntzen Mapa Bizkaia

Enplegua

- Gazteak eta lehen sektorea
- Gazte bekarioen eskubideak
- Evaluacion de Impacto lehen Aukera eta Garantia Juvenil
- Nazioarteko Egunak

Hezkuntza

- Bilbao Ciudad Universitaria
- Ikasleen Nazioarteko Eguna
- Campamento en el Parlamento
- Errekurtso Gida
- Nazioarteko Egunak
- Korrika

Astialdi

- Campamento en el Parlamento
- Udazkeneko Eskola
- Erlijio- arteko elkarbizitza
- Formakuntzak
- Astialdi Foroa
- Eskolen Foroa
- Astialdi Hezigarria
- Udako Ekintzen Kanpaina

Partaidetza

- Formakuntza Programa
- 40.urteurrena
- Foro Transpirenaikoa

Bakea eta Bizikidetza

- Etikasi Polonia eta Ipar Irlanda
- NNZ
- Erljio arteko elkarbizitza
- Nor-Nori-Zer
- Nazioarteko egunak
- Memoriaren eguna

Berdintaniztasuna

- Barne Kordinazioa
- Harreman Instituzionalak
- Eragin Politikoa
- EGKren 40. Urteurrena
- Kristalezkoak: Gazteak eta Ongizate Emozionala

Komunikazioa

- Errelebo memoria egin

Gai administratiboak

- Urteko balantze ekonomikoa

Garapena

EKINTZAK:

EGK-k, bakarrik edo beste administrazio edo elkarterekin batera, antolatzen dituen proiektuak gizarteratzea eta gazte erakundeen artean komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatzea.

KRONOGRAMA:

- Urte osoan zehar